# Alfonso Ugarte (1879-1937)

## eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian

# Alfonso Ugarte (1879-1937)

## y la reforma de la música sacra en territorio vasco-navarro

Ainhoa
**Kaiero Claver**



**50**

colección
Lankidetzan
bilduma

Antzuolako Udala

Lizarrako Udala

ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO IKASKUNTZA

colección

Lankidetzan

bilduma

# Alfonso Ugarte (1879-1937)

eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian

# Alfonso Ugarte (1879-1937)

y la reforma de la música sacra en territorio vasco-navarro

Ainhoa **K**aiero **C**laver

Azalaren argazkia / Fotografía Portada: “ Alfonso Ugar te”. Ar txibo familiar ra / Archivo familiar .

---

Kaiero Claver, Ainhoa

Alfonso Ugarte (1879-1937) eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian = Alfonso Ugarte (1879-1937) y la reforma de la música sacra en territorio vasco-navarro / Ainhoa Kaiero Claver. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2009.

165 or. : ir. ; 24 cm. - (Lankidetzan ; 50)

ISBN: 978-84-8419-183-4

I. Kaiero Claver, Ainhoa II. Serie III. Tít.

---

Eusko Ikaskunt zak eta Ant zuolako eta Lizarrako Udalek eskert zen diete liburuki honetan parte hartu duten egileei eta, elkartearen tradizioaren arabera, haien irizpide eta uste guztiak errespetat zen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi bereziki haietako ezein beren gain hart zen dutenik.

Eusko Ikaskunt za-Sociedad de Estudios Vascos y los Ayuntamientos de Ant zuola y Estella muestran su agradecimiento a la autora que ha colaborado en este volumen y de acuerdo con su tradición, respetan todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuman en particular cualquiera de ellos.

ISBN: 978-84-8419-183-4
L.G.: SS-1154-2009

Michelena ar tes gráficas
Astigar raga (Gipuzk oa)

# *Alfonso Ugarte (1879-1937)*
## eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian

# *Alfonso Ugarte (1879-1937)*
## y la reforma de la música sacra en territorio vasco-navarro


Laburpena / Resumen / Résumé ..... 9

***Alfonso Ugarte (1879-1937)***
*eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian*

Aurkezpena: Itziar Larrinaga ..... 15
Agurra: Jokin Nabaskues ..... 17
Esker ona ..... 19
1. Sarrera ..... 21
1.1. Testuinguru historikoa: musikaren berpizkundea ..... 21
2. Lehenengo urteak ..... 25
2.1. Prestakuntza-garaia ..... 25
2.2. Oposizio eztabaidagarri haiek ..... 27
2.3. Lizarrara iritsi zenekoa ..... 29
3. Alfonso Ugarte, musika sakratuaren erreformaren sustatzaile ..... 32
3.1. Zezilianismoa eta erreformaren hastapenak Europan eta Espainian 32
3.2. Lehenengo urrats bakanduak ..... 36
3.3. Erreforma finkatu eta hedatzen hasi ..... 40
3.4. Mugimendua errotu eta Alfonso Ugarteren lana aitortu ..... 44
3.5. Erlijio-musikan oinarritutako konposizioak ..... 48
4. Alfonso Ugarte, Lizarrako musika-bizitzaren bultzatzailea ..... 55
4.1. Ugarte eta burgesiaren musika-bizitza ..... 55
4.2. Lizarrako udal-bandako zuzendaria ..... 57
4.3. Ugarte, euskal kulturaren eta “nazionalismo musikalaren” sustatzaile ..... 63
Bibliografia ..... 67
Alfonso Ugarteren obren Katalogoa ..... 71

**Argazki sorta / Álbum fotográfico** ..... 79

Presentación: Itziar Larrinaga ..... 99
Saludo: Jokin Nabaskues ..... 101
Agradecimientos ..... 103
1. Introducción ..... 105
1.1. Marco histórico. El renacimiento musical ..... 105
2. Los primeros años ..... 106
2.1. La etapa de formación ..... 106
2.2. Unas polémicas oposiciones ..... 112
2.3. La llegada a Estella ..... 114
3. Alfonso Ugarte como promotor de la reforma de la música sagrada .... 117
3.1. El cecilianismo y los primeros aires de reforma en Europa y España ..... 118
3.2. Primeros pasos aislados ..... 122
3.3. Afianzamiento y expansión gradual de la reforma ..... 126
3.4. Consolidación del movimiento y reco nocimientos a la la bor realizada por Alfonso Ugarte ..... 131
3.5. La composición de música religiosa ..... 134
4. Alfonso Ugarte como impulsor de la vida musical de Estella ..... 141
4.1. Ugarte en la vida musical burguesa ..... 142
4.2. Su labor al frente de la Banda Municipal de Estella ..... 144
4.3 Ugarte como promotor de la cultura vasca y el nacionalismo musical ..... 150
Bibliografía ..... 155
Catálogo de la obra de Alfonso Ugarte ..... 157

Bibliographic Section ..... 165

Alfonso Ugarteren lana musika berpizkundearen esparruan kokatu behar da. Hego Euskal Herrian, loraldi hori bereziki Guridiri, Aita Donostiari eta beste musikari entzutetsu batzuei zor diegu, baina baita tokiko musikari garrantzitsuei ere. Lan honetan, hain zuzen, Ugartek musika sakroaren erreforman, nazionalismo musikalean eta musika-banden mugimenduan izan zuen eragina jasotzen da.

Giltza-Hitzak: Musikaren berpizkundea. Zezilianismoa. *Motu Proprio.* Koru-mugimendua. Euskal abertzaletasuna. Hego Euskal Herria. Lizarra.

La labor de Alfonso Ugarte se enmarca dentro de una etapa de renacimiento musical. Los artífices de este florecimiento en territorio vasco-navarro fueron figuras de primera línea (Guridi, Aita Donostia, etc.), pero también importantes músicos locales. Este trabajo recoge el papel de Ugarte como promotor de la reforma de música sacra, el nacionalismo musical y el movimiento de bandas musicales.

Palabras clave: Renacimiento musical. Cecilianismo. *Motu Proprio.* Movimiento coral. Bandas musicales. Nacionalismo vasco. Territorio vasco-navarro. Estella.

Le travail d'Alfonso Ugarte s'inscrit dans le cadre d'une étape de renaissance musicale. Les artisans de ce fleurissement en territoire basco-navarrais sont des figures de premier rang (Guridi, Aita Donostia, etc.), mais aussi d'importants musiciens locaux. Ce travail porte sur le rôle d'Ugarte comme promoteur de la réforme musicale sacrée, le nationalisme musical et le mouvement des fanfares.

Mots Clé : Renaissance musicale. Cécilianisme. *Motu Proprio.* Mouvement choral. Fanfares. Nationalisme basque. Territoire basco-navarrais. Estella.

# Alfonso Ugarte (1879-1937)

## eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian

Ainhoa **K**aiero **C**laver

# *Alfonso Ugarte (1879-1937)*
## eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian


Aurkezpena: It ziar Lar rinaga ..... 15

Agurra: Jokin Nabaskues ..... 17

Esker ona ..... 19

1. Sar rera ..... 21

1.1. Testuinguru historikoa: musikaren berpizkundea ..... 21

2. Lehenengo urteak ..... 25

2.1. Prestakunt za-garaia ..... 25

2.2. Oposizio eztabaidagarri haiek ..... 27

2.3. Lizarrara iritsi zenekoa ..... 29

3. Alfonso Ugarte, musika sakratuaren erreformaren sustat zaile ..... 32

3.1. Zezilianismoa eta erreformaren hastapenak Europan eta Espainian 32

3.2. Lehenengo urrats bakanduak ..... 36

3.3. Erreforma finkatu eta hedat zen hasi ..... 40

3.4. Mugimendua errotu eta Alfonso Ugarteren lana aitortu ..... 44

3.5. Erlijio-musikan oinarritutako konposizioak ..... 48

4. Alfonso Ugarte, Lizarrako musika-bizit zaren bult zat zailea ..... 55

4.1. Ugarte eta burgesiaren musika-bizit za ..... 55

4.2. Lizarrako udal-bandako zuzendaria ..... 57

4.3. Ugarte, euskal kulturaren eta “nazionalismo musikalaren” sustat zaile ..... 63

Bibliografia ..... 67

Alfonso Ugarteren obren Katalogoa ..... 71

## AURKEZPENA

Pozgarria da niret zat Ainhoa Kaiero Claverrek Alfonso Ugarte musikariaren bizit zari eta lanari buruz eginiko liburu hau aurkeztea. Ainhoa Kaiero Mu sikaren Historia eta Z ientzietan lize ntziatu zen Sala mancako unibertsitatean, eta Bart zelonako Unibert sitate Autonomoan doktoratu. Horrez gain, aditua da musika moderno eta garaikidearen estetika-arazoetan. Hain zuzen ere, gai hori izan zuen doktore-tesian aztergai, eta gerora hainbat artikulu argitaratu ditu gai horri buruz. Sorbonako Unibert sitatean eta Parisko École Normale Superieur unibert sitatean egonaldiak egin ditu. Gaur egun, Laurie Andersoni buruzko doktoratu ondoko ikerketa bat egiten ari da Parisen, École des Hautes Etudes en Sciences Sociales ikastegian. Eusko Ikaskunt zaren Musika Saileko kidea da eta, besteak beste, *Musiker* aldizkarian parte ha rtzen du. Etnomusikologiako Iberiar Elkartean *TRANS* aldizkariaren argitalpen bat zordeko kidea da.

Eusko Ikaskunt zaren Musika Sailak Ant zuolako (Gipuzkoa) eta Lizarrako (Nafarroa) udalekin eginiko hit zarmenei esker argitaratu da liburu hau. Antzuolako udalarekin 2006ko apirilaren 21ean sinatu zuen lankidet za hitzarmena. Ordutik, Eusko Ikaskunt zak eta udal horrek hainbat ekint za gauzatu dituzte elkarrekin. Margaret Bullenek eta Xabier Kerexetak Ant zuolako Mairuen Alardeari buruz eginiko ikerketa izan da garrant zitsuena. Ikerketa horrekin batera, "Euskal Herriko Alardeei" buruzko mintegi bat antolatu zen 2006ko maiat zaren 3an, 5ean eta 6an Ant zuolan. Era berean, Ant zuolako Udalak berak aginduta, Eusko Ikaskunt zak datu-base bat sortu du, herrian larrugintzan aritu diren enpresen dokumentu-funt sei buruzko informazio zehaztua jasoz. Izan ere, larrugint za oso jarduera garrant zitsua izan da Ant zuolan.

Bestalde, Eusko Ikaskunt zak eta Lizarrako Udalak 2005eko irailaren 23an sinatu zuten lankidetza hitzarmena. Bien arteko lehen p roiektuan, Eusko Ika skuntzak panel b atzuk ut zi zizkion udala ri, Ma nuel Irujo Ollo jaunari buruzko erakusketa egiteko. Eusko Ikaskunt zak Manuelen 20. urteurrena ospat zeko 2001ean diseinaturiko panelak izan ziren.

Antzuolako eta Lizarrako udalekin eginiko lanen ildotik sortu da Ainhoa Kaiero Claverrek Alfonso Ugarteri buruz eginiko ikerketa hau. Aipaturiko bi udalek 2006an hasi ziren elkar lanean, musikariaren irudia berreskurat zeko eta gorat zeko. Elkar lan honek fruituak eman ditu, besteak beste, musikagileari buruzko erakusketa bat antolatu da Ant zuolan nahiz Lizarran. Mint zagai dugun liburua ere lankidet za horren ondorio da, eta Eusko Ikaskunt zaren Musika Sailak ere esku hartu du.

Eskerrak eman nahi dizkiot Alfonso Ugarteren familiari, lana egiten laguntzeagatik, bereziki Jokin Nabaskues Ugarteri. Eta eskerrik asko halaber, Ainhoa Kaiero Claver ikert zaileari, bere jar rera bikainarengatik.

Itziar Larrinaga Cuadra
*Eusko Ikaskuntzako Musika Saileko lehendakaria*

## AGURRA

Bi urte luze igaro dira obra horren proiektua abian jarri zenetik, Eusko Ikaskuntzaren eta Antzuola eta Estella-Lizarrako Udalen artean sinaturiko hitzarmenen fruitu. Aurrez, 1979an eta 1980an, Alfonso de Ugarte gure aitonaren jaiotzaren 100. urtemugan, haren ibilbide musikala aitortzeko hainbat ekitaldi egin zituzten aipaturiko Udaletan, eta bertan egon ginen familia osoa, guztiz hunkituta.

Bi Udaletako Kultura Etxeetako eraku sketak amaitu ostean –objektu pertsonalak, partitura idatziak eta argitaratuak, etab. egon dira ikusgai–, buruturiko ikerketa-lana argitara eman da liburu interesgarri honetan. Ainhoa Kaierok egin du lan luze eta baliotsu hori, eta nik atsegin handiz lagundu diot.

Horretarako, gure osaba Julio Ugartek –musikaria bera ere, eta konpositorearen semea– ezarritako gidoia jarraitu dut, datuak, familiako eta gizarteko istorioak eta argazkiak bilduz eta haren musika-lan guztia sailkatuz.

Espero dugu horrek guztiak ondorengo belaunaldiek Alfonso Ugartek buruturiko lana balioratzeko balio izatea, baita garai hartako beste musikari batzuena ere. Ikerketak Euskal Herriko musikari buruzko ezagutza handitzeko balioko du.

Eskerrik asko denoi bihotz-bihotzez.

Jokin Nabaskues Ugarte
*Konpositorearen biloba*

**ESKER ONA**

Eskerrak eman nahi nizkioke konpositorearen biloba Jokin Nabaskuesi, lan hau egiten lagunt zeagatik. Orobat, Eusko Ikaskunt za eta Eresbil erakundeen lagunt za eskertu nahi nuke, baita Lizarrako Gaitarien Elkartearena (batez ere Salvador Martínezena), Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoko arduraduna den eta hango Udal Art xiboa ondo ezagut zen duen Gregorio Díaz Ereñorena, eta azkenik, dokumentazioa lort zen lagundu didan Iñigo Muguetarena ere. Eta ez n ituzke aipatu gabe utzi nahi Lizarrako San Juan Artxiboan, Iruñeko Elizbarrutiko Art xiboan, Donostiako Elizbarrutiko Art xibo Historikoan eta Lizarrako Liburutegi Publikoan nire lana erraztu duten gainerako lagun guztiak.

## 1. SARRERA

1879ko abuztuaren 2an jaio zen, Ant zuolan (Gipuzkoa), Alfonso Ugarte konpositorea. Lizarran (Nafarroa) igaro zuen Ugartek bere musika-ibilbidearen zatirik handiena, han bizi izan baitzen heriotzak, zahartzeko astirik eman gabe, eraman zuen arte, 1937ko maiat zaren 3an. Alfonso Ugarteren bizit zak eta lanak, musikaren historiaren bilakaerari dagokionez, aro erabakigarria izan zuten testuinguru, bai Euskal Herrian bai iberiar penint sulako gainerako lekuetan. A ldaketa soziokultural sakonen garaia zen hura, eta Europan zebiltzan berrikunt za-giro haietara egokit zen saiatu zen musika. Loraldi, berpizkunde edo zilarrezko aroak XIX. mendearen amaieratik 1936ra arte iraun zuen, gerra zibilak, lehenbizi, eta Francoren diktadurak, ondoren, zapuztu egin zuten-eta haren sendot zea[1]. 'Nazionalismo musikala' deitura eman izan zaio aro hari ere, orduan egin bait zen ekarpen desberdin eta propioa, Europakoaren tankerakoa eskaint zeko ahalegina, eboluzioaren eta unibert saltasunaren adierazpide. Bika in e gokitu zit zaion Alfonso Ugarteren izaera belaunaldi hari, zeinari '98ko belaunaldia', e do maisuena deitu izan dion zenbaitek. Adiskidetasuna eta ekimena partekatu zituen Ugartek Euskal Herrian musika-berrikunt zaren protagonista nagusi izan zirenekin: Guridi, Usandizaga, Nemesio Otaño, Azkue, Aita Donostia... bat zuk aipat zearren. Ugarteren lana eta mugimendu hura bereizezinak direnez, garai hartako gertakari nagusi bat zuk hitzaurre honetan aipat zea egoki lit zatekeela iruditu zaigu.

### 1.1. Testuinguru historikoa: musikaren berpizkundea

Euskal Herrian eta iberiar penint sulako beste eskualde aurreratu bat zuetan jazotako musika-berpizkundearen ezaugarri nagusiak honako hauek ditugu: burgesiari lotutako musika-azpiegitura modernoen eraikunt za, euskal genero sinfonikoaren eta operaren sorrera, nazionalismo musikalaren sustapena, musika koralaren eta herri-banden hedapena, eta azkenik, musika sakratuaren berrikunt za[2]. Berandu irit si zen iberiar penint sulara modernizazio hura, XIX. mendeko ezegonkortasun politiko bereziarengatik, hein batean. Garaiko aldaketa ekonomiko, sozial eta kultural sakonekin bat eginik, Erregimen Zaharreko erakund eetatik a skatzen hasia zen musika ere, burgesia nagusi zuen gizarte moderno hartako azpiegitura eta jardueretan t xertatzeko. Jakina, pixkanaka gauzatu zen aldaketa hura XIX. mendean. Mende hartako bigarren erditik aurrera hasi ziren nabarit zen jarduera horren lehen urrat sak: lehenbiziko akademiak eta elkarte filarmonikoak sortu ziren; espainiar opera bat sort zeko eta musika sakratua aldat zeko planteamenduak abiarazi ziren; Katalunian, abesbat zen mugimendua sortu zen... Mendearen amaieran, indar handiagoa hartu zuten ekimen horiek, eta behin betiko sendotu. Berrezarkunt zaren garaian, industria-jarduera garat zen hasi zen Euskal Herrian, eta 1910-1920an burutu zen prozesua. Oparotasun ekonomikoarekin batera etorri zen 'kultura-berpizkundea', hirietako burgesia modernoak bult zatuta.

Euskal burgesiak elkarte filarmonikoak eta kont serbatorioak sort zeari ekin zion lau hiriburuetan, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean. Bilbon,

---

1. Ikus Casaresen ar tikulua (1987).

2. Ikus Nagore (2002).

1896an sortu zen Elkarte Filarmonikoa, zeinak europar errepertorio sinfonikoa bult zatu eta euskal konpositoreen sorkunt za s ustatu z ituen. 1 903an, berriz, Akademia sortu zen, aipatutako Elkartearen it zalpean. Gero, Bizkaiko Musika Kont serbatorioa bihurtu zen Akademia. Bai Bilbon bai Donostian bazuten elkarte filarmoniko eta akademien aurrekaririk, baina ez zuten aurrera egin. Haietako asko basiliken gerizpean sortuak ziren (Santiagokoa, Bilbon; Santa Mariakoa, Donostian...), gerora haiekiko lotura eten egin bazuten ere. Donostian, 1887an jarri zen mart xan, behin betikoz, Udal Musika Akademia, bandari lotua [3]. 1912an, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen babespean 1893an sortutako Arte Ederretako Akademiarekin bat egin zuen Musikakoak (1929an, kont serbatorio bihurtu zen akademia berri batua). Europako musika-antolamenduaren ereduei begira jarri ziren euskal hiriburuetako musika-erakunde berriak, eta at zerrian ikasitako jende ezagunarengana ere jo zuten: Guridigana, adibidez. Parisen, Belgikan eta Kolonian ikasten jardun ondoren, Kontserbatorioko irakasle eta Bilboko Koral Elkarteko zuzendari izan zen Guridi.

Mendearen amaieraz geroztik, izan ere, Madrileko menpekotasuna eten eta kont serbatorioaren estilo italiarzalea alde batera ut zi zuten euskal konpositoreek, Europako erakundeetan jarri zituzten begiak, eta zuzenean haietara jotzen hasi ziren trebakunt za bila. Ordura arte, bertako ikasketak egin eta gero, Madrilgo Kontserbatoriora jo ohi zuten euskal konpositore gehienek goi-ikasketak egitera. 1830ean sortu zuen erakunde hori Maria Kristina erreginak, Napolitik it zuli berritan, eta XIX. mendearen amaiera aldera arte iraun zuen musikaren italiart zearen arduradun nagusietakoa izan zen. Euskal musikarien belaunaldi berria (Guridi, Usandizaga, Azkue, Aita Donosti...), ordea, Parisen, Belgikan edo Alemanian ikasia zen, eta hona it zultzean sustatu zuten musika-jarduera korronte moderno berriei zabalik zegoen. Kontzertu-elkarteek errepertorio berri hura plazaratu zuten, eta konpositoreek bazterrera ut zi zuten estilo italiarzalea, zaharkitua jada, eta Europako joera berri haien eskutik, euskal musikagint za eraberrit zen saiatu ziren. Musika nazionala sort zeko proiektua abiatu zen (Pedrellen nazionalismo musikalaren bide beretik joz), zeina bertako musika-sustraietatik elikat zen bait zen (folklorea, historia...), tradizio erromantikoaren moduak eta generoak jorratuz, produktu bereizia eta aldi berean unibert sala erat zeko asmoz.

XIX. mendean hasi zen euskal folklorea bilt zeko lana, eta orduan argitaratu ziren lehenbiziko bildumak edo kantutegiak. At zerriko musikariek egin zuten argitalpen haietako zenbait, e uskal melodien berezitasunak liluraturik (Charles Bordesek, adibidez) [4]. XX. mendean, zabaldu eta areagotu egin z en j oera h ura, e uskal k ulturaren b erpizkundea a biatzearekin b atera –Euskal F estak, bertako musikaren azterketa sustatzeko lehiaketak eta sariketak, eredu h oriek oinarri zituzten obra berriak, euskal o ndarea ikertu eta zabalt zeko elkarte eta erakundeen sorrera (Eusko Ikaskunt za 1918an sortu zen; 1921ean, Euskal Musikaren Argitalet xearen sorrera babestu zuen

3. Donostiak o Udal Musika Akademiaren sor rerari bur uz gehiago jakitek o, ikus T ellechea, 1992.

4. Ikus “La música popular” epigrafea, Mar tija, 1987, 153-165 or.

erakunde horrek, bandek euskal obrak izan zit zaten; 1927an, Txistulari Elkartea sortu zen...)–. Konpositoreek ere izan zuten parterik mugimendu hartan, euskal musika bilt zen eta ikert zen jardun bait zuten, R. M. De Azkueren eta Aita Donostiaren kantutegiek (1921ean eta 1922 argitaratuak, hurrenez hurren) adierazten digutenez [5]. Era guztietako musika-genero eta –elkarteetara zabaldu zen errepertorio folkloriko hura (bandak, orfeoiak, t xistulari-taldeak...), baita adierazpen jant ziagoetara ere (pianoaren lagunt zarekin egiten ziren kantaldiak, genero sinfonikoa...). Azkena aipatu dugun generoari dagokionez, estilizatu egin zen euskal folklorea, Europako tradizio musikalaren lengoaia eta formatuetara egokit zearren. Mendearen lehen urteetan sustatu zen genero sinfonikoa, eta batez ere euskal operaren proiektua plazaratu zen, Guridi eta Usandizaga ordezkari nagusi zituela.

Baina tradizioz jant ziko europar musika-korronteekin batera, mugimendu herrikoiagoak sortu eta hedatu ziren. Banda eta abesbat zez ari gara, batik bat XIX. mendearen bigarren erdian hedatuz joan bait ziren Europako herrietan[6]. Iberiar penint sulan, mende hartako erditik aurrera hasi zen sart zen aipatutako mugimendua, batik bat Katalunian eta Kantauri it sasoaren ertzeko herrietan (Euskal Herrian eta Galizian, gehienbat), industrializazioaren indarrari eta langile-kont zentrazioari loturik betiere. Mende haren amaieran jo zuen gailurra mugimenduak, eta banda eta orfeoi ugari sortu ziren hirietan, honako edo halako elkarteek bult zatuta. Hirietan ez ezik, herrietan ere at zeman zen mugimendua, eta askok zituzten beren orfeoiak eta musika-bandak.

Gizarte-klaserik xumeenek ere musikan parte hart zea sustatu zuen mugimendu hark, kantu korala edo banda-sorrera bult zatuz. Ilustrazioko idealekin bat eginik, mugimendu hark burgesiaren goi-zirkuluetatik harago zabaldu nahi zuen musikaren ikaskunt za eta lanketa, herri xeheari alegia. Instrumentu eta musika-partituren fabrikazio industrialak ere lagundu zion musikaren 'demokratizazioari', asko merkat zen bait ziren kostuak, eta ondorioz, prezioak. Herri xeheari 'ohitura onak' irakastea, moral jakin bat banatzea zuten helburu musika-elkarte haiek, bide batez entretenimendu-bide jatorra eta zenbaiti lanbide duina ere emanez, tabernetatik urrunt zen (garai hartako moral 'zuzenaren' irit ziz, bizioaren hedaleku ziren tabernak) eta jokabide desegokietan ez jausten lagunduz. Ideologia horrek funtsezko tresna z uen musika: gizakiaren heziketa eta hobet ze morala sustat zen zituela zioen, eta nazio baten garapen espiritualaren eta aurrerapenaren erakusle zela musikaren hedapena. Ondorioz, jaialdi eta sariketa handiak antolat zen ziren (tokian tokikoak eta nazioartekoak). Hainbat herri eta herrialdetako banda eta abesbat zak lehiatzen ziren horietan, norberaren sorlekua gorago nork ut ziko.

---

5. Euskal musikaren aldek o ekimen horien ibilbideaz eta ideologiaz, ikus Sánchez Ekiza, 2005.

6. Espainiak o eta Euskal Her riko mugimendu k oralaren garapenari bur uz gehiago jakitek o, ikus Bagüés (1987), Ibarretxe (1996), Labajo (1987), Nagore (2001). Her ri-banden mugimenduari buruz, ikus Suso (2006).

Mugimendu hark asoziazionismotik ere (jarduera moderno eta demokratikoa) edan zuen. Gizarteko gero eta sektore gehiagotara ari zen hedat zen herritarren elkartze libre eta borondatezkoa, hainbat helburu eta ideologiaren arabera ( politikoak, kulturalak, erlijiosoak). Jadaezziren burgesak bakarrik elkartzen kontzertu-elkarteetan (sozietate filarmonikoak) edo aisialdikoetan (kasino eta lizeo pribatuak, non tertuliak , jokoak, dantzak eta ikuskizunak antolatzen zituzten). Behe-klaseak ere hasiak ziren jarduera musikalen inguruan elkartzen (bandak, abesbatzak...), eta aire librean kontzertu eta dantzaldi publikoak egiten. Orfeoi eta banda haietako asko enpresa jakin batzuei loturik sortu ziren (Nerbioiko ontzioletako musika-banda, adibidez) [7], edo zenbait helburu eta ideologiatako mugimendu eta elkartek sustatuta: Zirkulu Katolikoak, alderdi politikoak (PSOE, EAJ...). Espiritu kolektibo baten inguruan jendea elkartzeko eta baterat zeko tresna ahalt sua zen musika, eta kontzentrazio publiko jendetsuak egiten ziren, ereserkiak abesteko, besteak beste.

Musika sakratua kezin bada aparte geratu bere inguruko gizartean eta kulturan izaten ari ziren aldaketa haietatik. XIX. mendeko bigarren erdian hasi ziren nabaritzen aldaketaren lehen aztarnak, musika berritzeko beste mugimendu bat zuen antzera[8]. XX. mendearen hasieratik aurrera, ordea, era programatu eta osoan mamitu zen musika sakratuaren erreforma, Pio X aita santuaren agiri bat zela medio ( *Motu Proprio*). Erlijio-musika duintasunez hornitzea zuen helburu erreformak, haren funtsa erabat usteldu zuten beste genero profano eta teatral batzuen eraginpetik atereaz. Europako mugimendu zeziliatarrek bultzatutako aldaketa-korrontearekin bat eginik, lirika italiarra eta erabat andeatutzat jotzen ziren beste era herrikoi batzuk (arietak...) alde batera utzi nahi zituen musika sakratuak, zaharkitutzat baitzeuzkan. Alde horretatik, ez zegoen alde handirik lehentxeago aztertu ditugun musika eraberritzeko beste mugimendu batzuekiko. Berrikuntza hura, abertzaletasuna bezala, bere ahots edo muin propioaren bilaketaz baliatu zen. Horretarako, bere tradizio historikoaren jatorrizko iturriak berriro biltzeari ekin zion (kantu gregorianoa, Errenazimentuko polifonia...). Hala, bada, XIX. mendeko erditik aurrera hedatzen ari zen mugimendu historizistari estu loturik zetorren aldaketa.

Mugimenduaren egiturat ze eta propaganda moduek, berriz, bazuten loturarik beste asoziazionismo era moderno batzuekin. Izan ere, beste mugimendu ideologiko bat zuetako kideak bezala, biltzarretan elkartzen ziren eta eztabaidatzen zuten 'afiliatuek', eta baliabide modernoak zituzten (prentsa...) antolatzeko eta beren doktrina hedatzeko. Bestalde, herritar fededun engan eragina izatea zuen helburu aldaketak. Ondorioz, lehen aipatu dugun mugimendu koralarekin elkarlan estuan jarduten zuen. Horrenbestez, modernitatearen aurkako irizpideak aldarrikatzen zituen mugimendu atzerakoia baino gehiago (halakotzat azaldu izan du zenbaitek), egokiagoa litzateke jotzea musika sakratuaren erreforma alderdi guztietara zabaltzen ari zen garai har-

7. Suso, 2006, 22. or.

8. Erlijio-musikak Espainian XIX. mendean izan zuen bilakaerari buruz, ikus Virgili, 1995.

tako berpizkunde-giroaren emait zatzat. Horren froga dugu musika sakratuaren berrikuntzaren bultzatzaile nagusiak beste alor batzuetan ere (harekin lotuak) aitzindari zirela (abert zaletasuna, azpiegitura berrien sustapena, mugimendu korala...): Aita Donostia, Otaño, Guridi... Geroago aztertuko dugu sakonago zer jarrera hartu zuen aldaketa hark soinu-lengoaiaren modernot zearekiko. Harrigarria iruditu arren, Europako joera modernoak (baita abangoardiakoak ere) bereganat zearen aldekoak ziren zenbait. Bestalde, hispaniar organo tradizional eta zahar haren ordez organo erromantikoa erabilt zearen aldeko bultzatzaile nagusietakoa izan zen erreforma.

Deskribatu dugun testuinguruaren adibide garbia izan zen Alfonso Ugarte, aipatutako alderdi guztietara irit si bait zen haren ekarpena: musika sakratuaren erreformaren jarrait zaile sut sua izan zen, eta Lizarran musikazaletasuna bultzatzen aritu zen, buru-belarri. Batetik, kontzertuak antolat zen zituen antzoki eta areto pribatuetan; bestetik, maila herrikoiagoan, udal-bandako eta herriko orfeoiko zuzendari izan zen. Euskal kulturaren berpizkunde eta hedapenarekiko ere at xikimendu trinkoa zuen Ugartek. Alderdi horietatik guztietatik, musika sakratuaren berrit zailearena dugu aipagarriena. Horregatik erabaki dugu gure ikerketaren lehen aldea (luzeena) musikariak Elizaren zerbitzura egindako lanari eskaint zea. Ondoren, Lizarrako musikazaletasuna sustat zeko egindako lan t xalogarriaz jardungo gara. Azter dezagun lehenbizi Ugarteren lehen trebakunt za-garaia.

## 2. LEHENENGO URTEAK

### 2.1. Prestakunt za-garaia

Zumarraga eta Bergara artean dagoen Gipuzkoako barrualdeko herri txiki batean, Ant zuolan, jaio zen Alfonso Ugarte eta Leturia, 1879an. Lehen musika-prestakunt za Juan Lino Leturia osabaren eskutik jaso zuen, zeina Zumarragako Jasokundeko Ama Birjinaren parrokiako organista bait zen. Sasoi hartan, artean, elizarena zen herrietako musika-azpiegitura ahalt suena. Elizetako organisten babespean eman ohi ziren musika-trebakunt zako lehen urratsak. Maila hori gaindit zen zutenean, mutilik argienak eta gaituenak hirietako akademietara joan ohi ziren. Parrokietako organistek kapera-maisu gisara jarduten ziren, antolakuntza eskasagoko eta baliabide urriagoko elizetan bazen ere, eta organoa jot zeaz gain, parrokiako abesbat za trebatu eta zuzendu behar izaten zuten, kantu- eta solfeo-eskolak eman, eta instrumentua jotzen irakatsi e re, z entro h aien b abespean s ortutako a kademia txikietan. Horixe egiten zuen, bada, Juan Lino Leturiak, Gipuzkoako herri horretako organista izan bait zen hil arte (1895), baita herriko musika-akademia t xiki baten sort zaile ere [9]. Zumarragako lehen udal musika-bandako zuzendari ere izan zen Juan Lino Leturia. Ez da harrit zeko kontua, organistak

9. Donostiak o Elizbar rutiko Ar txiboa, Zumar ragako Jasokundek o Ama Birjinaren par rokiako Fabrika K ontuak: 1895ek o ot sailak 14. Ikus, halaber, "Leturia, Juan Lino", in DMEH (2002- VI. Lib.: 903).

(herrietako musikari nagusiak) izan ohi bait ziren kargu horren jabe (Lizarrako kasua aztertzean, berriro azalduko zaigu bikoiztasun hori). Bai Juan Leturia, bai haren anaia Pedro Leturia Mendia (jesuita, Munichen ikasia, Oñan eta Erromako Unibertsitate Pontifikalean irakasle izana) prestigio handiko musikaritzat dauzkate herrian, eta haien izena du plazetako batek: 'Leturia anaiak plaza'.

Zumarragan ekin zion, bada, musika-trebakuntzari Alfonso Ugartek, osaba organistaren eskutik. Mutikoa zela, sopranoa zen Zumarragako parrokiako abesbatzan, bere aita (Federico) bezala, herriko parrokiako abesbatzako tenor goretsi eta ezaguna izana. Segur aski, herriko akademia txikiharta n ikasiko zituen Alfonsok kantua eta solfeoa, eta han jasoko zuen organista izateko lehen trebakuntza. Akademia berean egin zituzten lehen ikasketak beste zenbait musikari ezagunek ere: besteak beste, Busca Sagastizabalek (organista bikaina eta musika sakratua berritzeko mugimenduko partaidea, Madrilgo *Euskal Etxeko Orfeoia*ren sortzailea) eta Secundino Esnaolak, gerora *Donostia*ko *Orfeoi* ezagunaren zuzendari izanak. Elkarrekin jardun zuten Secundino Esnaolak eta Alfonso Ugartek trebakuntza-garaian, biek ikasi bait zuten Zumarragan, Juan Leturiaren akademian. Biak joan ziren gero Donostiako akademiara eta Bergarakora, eta bertan, Pedro Fernández de Retana kapera-maisua izan zuten irakasle.

Ez daukagu datu askorik trebakuntza-aro haren kronologia zehazki berreraikitzeko. Pentsatzekoa da sorterrian lehen ikaskuntza-urteak egin eta gero, Bergarara, ondoko herrira, joango zela Alfonso Ugarte, San Pedro parrokiako organista eta kapera-maisu Pedro Fernández de Retanaren eskutik musika-jakintza areagotzera. Gasteiztarra zen Pedro Fernández de Retana, eta Zaragozan egin zituen bat xiler-ikasketak, non piano-jotzaile ospetsu bihurtu eta mugimendu koralaren sustatzaile izan zen (*Orfeón Zaragozano* sortu zuen). Geroago, 1895a aldera, Bergarara jo zuen, San Pedro parrokiako organista izendatu zuten eta. Mendearen amaiera aldera, *Aritz Maitea Orfeoia* sortu zuen, gero *Orfeón Vergarés* izango zena [10]. Kapera-maisu haren itzalpean osatu zuen musika-trebakuntza Alfonso Ugartek: harmonia eta konposizioa ikasi zituen, eta organo-ikasketekin jarraitu. Ziurrenik, San Pedro elizan Pedro Fernández de Retanarekin jardutearen poderioz, ohitu egin zen Stoltz Frères frantses etxeak 1888an parrokia hartan jarritako organo handi eta modernoa jotzera[11]. XIX. mendeko azken hamarkadetan hasi ziren hispaniar organo barroko zaharren ordez Cavaillé-Coll eta Stoltz frantses etxeetako organo erromantiko berriak jartzen. Arrakasta izan zuten organo erromantikoek, eta herri askotako parrokietan jarri zituzten. Euskal Herriko organo-egileek, berriz, 'birziklatu' eta organo berri haiek egiteari ekin behar izan zioten (Casa Roqués etxeak, eta, batez ere, Aquilino Amezuak egin zituzten euskal parrokietako organo berrietako asko, Parisko tailer batean trebakuntza-ikasta-

10. Ikus "Retana, Pedro", in DMEH (2002- IX. Lib.: 134). Ikus, halaber, "Fernández de Retana, Pedro", in DMEH (2002-V.lib.: 63). Bi izenak agertu arren, badirudi pertsona bera zela.

11. Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa. Bergarako San Pedro Parrokiako Batzordearen erabakiak (1882-1929): 1888ko ekainaren 4ko batzorde-bilera.

roa egin eta gero) [12]. Bergaran, aukera izan zuen Alfonso Ugartek instrumentu berriaren teknika ikasteko eta Frantziako organo-eskola modernoko erreperto-rioa eta lengoaia bereganat zeko (Cesar Franck, Guilmant, Dupré...) [13].

Geroago, edo agian aldi berean, Donostiako Arte Ederretako Elkarteko Musika Akademiara jo zuen Alfonso Ugartek ikasketak amait zera. XIX. mendeko azken hamarkadetan, turistent zako hiri erakargarria bihurtua zen Donostia, errege-familiak eta goi-klaseetako j endeak udako hilabeteak ematen zituzten bainuet xe modukoa. Madrilgo musikari ezagunik ere bazen turista haien artean: besteak beste, Arbós maisua. Jakina, kultura-jarduera aberasgarria ekarri zion hiriari testuinguru hark, eta kont zertuak egiten ziren aire zabalean eta kasino pribatuetan. Gran Casino aretoa, 1887an i nauguratua, hiriko kulturagune nagusietakoa bihurtu zen. Garai h orretantxe sortu ziren Udal Akademia eta Arte Ederretako Elkartea ere, dirudun jendearen etorrerak ekarritako musika-eskaint za eta eskaeraren arrimuan. Piano eta harmonia-ikasketak egin zituen Alfonso Ugartek Akademian, German Cendoya maisu zuela. Pianista ospet sua eta zenbait euskal musikari handiren irakaslea zen Cendoya: Alfonso Ugarterenaz gain, Juan Telleria, Regino Sainz de la Maza, Jose María Usandizaga eta Pablo Sorozabalena.

## 2.2. Oposizio eztabaidagarri haiek

Trebakuntza-garaia amaiturik, oposizioak egiteari ekin zion gure musikariak, parrokiaren batean organista-postua eskurat zeko asmoz. Ikasle zela, artean 17 urte besterik ez zuela, aurkeztu zen lehenbizikoz oposizio batzuetara, Balmasedan. Nafarroako oposiziogile bati eman zioten postua, baina Ugarteren musikarako dohaina agerikoa zen, nonbait, epaimahaiko buruak, Resurrección María de Azkuek, Parisera joateko gomendatu baitzion ikasketak amait zera. Gero, 1900ean, Lizarrako San Pedro Ruako parrokiako organista-postua betet zeko oposizio-deialdia egin zen, eta aurkeztu egin zen Alfonso Ugarte, baita lehen postua eskuratu ere. Hala eta guztiz ere, beste musikari bati (herrikoa bertakoa) eman zioten postua.

Fabrikako Bat zordeko eta Tomás Larumbe parrokoaren arteko gatazka izan zuen jatorri istilu hark [14]. Ordura arte, herriko musikari batek, Juan Sierra izenekoak, hamahiru urte zeramat zan parrokiako behin-behineko organista-postuan. Organista xumea zen, musika-ikasketa apartekorik gabea, bere lana txukun eta garaiz egiten zuena. Tomás Larumbe parrokoak, baina, are elizkizun solemneagoak egin nahi zituen bere elizan. Horretarako, Lizarrako beste

---

12. Ikus I. Kapitulua, "Evolución del órgano romántico en el ter ritorio vascona varro", in Elizondo (2002: 45-109).

13. Alfonso Ugar teren musika-ar txiboko katalogoan (familiaren ar txiboan), "Música Orgánica" atalean, Guilmant, Cesar F ranck, Lemmens, Letocar t eta Lamber ten obrak daude, besteak beste.

14. Eztabaida haren k ontakizuna Tomás Lar umberen biografian dago, VII. kapituluan (Goñi Gaztambide) (1994).

musikari bat, ibilbide artistiko ent zutetsukoa, kontratatu nahi zuen. Feliciano Celayeta y Octavio zen aipatutako musikaria. Carmelo Gómez de Seguraren gidaritzapean i kasia z en l ehenbizi, e ta o ndoren, M oisés B aylósenean. B i irakasle horiek organista ospet suak ziren, eta beren ardurapean zituzten Lizarrako beste bi parrokia nagusietako organoak, San Migel eta San Joan parrokietakoak alegia. Bestalde, goi-ikasketak egina zen Feliciano Celayeta, Iruñeko Musika Akademian eta Madrilgo Kont serbatorioan, eta nota bikainak jasoa harmonian eta konposizioan. Oposizioa egin zenean, Lizarrako musika-bandaren zuzendaria zen, baita *Orfeón Estellés* sortu berriarena ere. Horrez gain, Lizeoko eta beste elkarte pribatu dotore eta burges batzuetako zuzendari artistikoa ere bazen.

Tomás Larumbek erabaki zuen, b ada, oposizio-deialdia e gitea San Pedro Ruako organista-posturako, bere gogoko hautagaiak puntuaziorik handiena aise eskuratuko zuelakoan. Alabaina, kanpoko oposiziogile batek, Alfonso Ugartek, puntuazio hobea jaso zuen, nahiz eta epaimahaian zeuden Celayetaren maisu izandako Carmelo Gómez de Segura eta Moisés Baylós. Bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen Celayetak. Baina oposizioko epaimahaikideen erabakia ez zen loteslea, eta Fabrikako Bat zordeari zegokion postua esleit zea. Bat zordeko kide guztiek, Tomás Larumbek izan ezik, Juan Sierraren aldeko botoa eman zuten.

Haserre bizian jarri zuen erabakiak Tomás Larumbe. Sei oposiziogileetatik puntuaziorik txikiena jasot zea egot zi zion Juan Sierrari, eta gainera, organista-postuari zegozkion eginkizunak maiz saihestea. Gatazka-giro hura ikusirik, got zainak agindu zuen urtebeterako Juan Sierrari emateko postua, betiere arrazoi larri eta justifikaturen batengatik lehenago kent zen ez bazuten. Baina gatazkak jarraitu egin zuen. Organistaren betekizunak ageri diren aktek [15] garbi adierazten dute Tomás Larumberen ezinikusia Juan Sierrarekiko: elizkizun guzti-guztietara puntualtasun zorrot zez joateko agint zen zion, eta horrez gain, zenbait obligazio bidegabe ezarri zion (adibidez, festa handietako ospakizunek eragiten zituzten aparteko gastuak ordaint zekoa), eta baita mehat xu bat ere: arau-hausteren bat eginez gero, ñimiñoena izan arren, kargutik kendu egingo zuen parrokoak. Eskandalu publiko ere bihurtu zen etsaigo hura. Halako batean, herritarrek irainka eta garrasika hartu zuten organista elizako atean, apaizak, pulpitutik, eliztarrei haren aurka burua berotu eta gero. Got zainak berriro esku hartu behar izan zuen: kargutik kendu egin zuen Juan Sierra, eta oposizioetara au rkeztu ez zen beste organistaren bat jart zeko agindu zuen, edo bestela, oposizio hartako zeinahi lehiakide, Juan Sierra eta Feliciano Celayeta y Octavio (hautagai faboritoa) izan ezik. Azkenik, 1902an, Fabrikako Bat zordeak Alfonso Ugarte eta Leturiari eman zion organista-postua, 1900eko oposizioetan legez eta bidez irabazi zuen harexeri, alegia.

Urte eta erdiko (gut xi gorabehera) etenaldi hartan, organista-karguetarako beste zenbait oposiziotara aurkeztua zen Alfonso Ugarte. 1901ean, puntuazio bikainak jaso zituen Elorrio eta Hondarribiko parrokiek deitutako oposizioe-

---

15. Ir uñeko Elizbar rutiko Ar txiboa, 112. libur ua, San P edro Ruak o par rokiako aktak (1860-1954): "Nombramiento de organista", 1900ek o azaroak 6.

tan. Hala eta guztiz ere, 1902an, Lizarrako San Pedro parrokiako erretorearen deiari erant zun eta herri hartara jo zuen, organista-kargua hart zera. Hara iristean, sorterriko (Ant zuola) parrokoaren gutun bat erakut si zuen: Ugarte gizakume zint zo eta elizkoia zela zioen, eta zenbait urtez organista aritua zela parrokia hartan. Gutunak zioenez, gaitasun berezia zuen Ugartek kargu hartarako, eta oro har musika irakasteko trebezia eta zaletasun handia [16]. Alfonso Ugartek, beraz, Ant zuolako parrokiako behin-behineko organista-lanean aritua behar zuen izan XIX. mendearen amaieraz geroztik. Berretsi egiten digu hipotesi hori Alfonso Ugarteren seme Juliok (apaiza), zeinak dioen mende amaierako urte haietakoren batean Rossiniren *Stabat Mater* jo zuela, parrokiako abesbat za kantari zela, eta aitona Federicoren tenore bakarlari-pasarte bereziki t xalogarria izan zela. Julioren art xiboan dago oraindik partitura hura. Zalant zarik ez dago, beraz, Ugartetarrek nabarmen goratu zutela Gipuzkoako landa-herri t xiki horretako elizkizunetako musikaren maila.

## 2.3. Lizarrara irit si zenekoa

Lizarrara jo eta gero ere zenbait urtez luzatu zen kargurako izendatu aurreko gatazka-giroa, kaltetuak (Juan Sierra) miseriara bult zatu zuen parrokoaren aurkako erresumina airerat zen jarraitu bait zuen, baita Alfonso Ugarteren kontrakoa ere. Sierrak zioenez, berak hamahiru urtez inongo kexarik jaso gabe bete zuen postua kendu zion kanpotar musikari hark, Ugartek. Denbora batez, got zainari kexak helarazten jarraitu zuen Juan Sierrak, pairat zen ari zen miseria eta diruarazoen berri ematen. Tomás Larumbe parrokoak kargu hori ut zi zuenean, 1908an, San Pedroko organista-postua itzultzeko ere eskatu zion got zainari. Ez zion onartu eskaria, eskandalu hura, zorionez, ezkutatua zelako jada eta bazutelako organista azkarra, musikari handia, eta zenbait familia ospet surekin oso harreman onetan zegoena ("un organista inteligente, pues es un gran músico, muy bien relacionado con familias importantes") [17]. Baieztapen horrek adierazten digu zenbaterainoko estimazioa zuen bereganatua Alfonso Ugartek elizako agintari eta herriko dirudunen aldetik, denbora gut xi eraman arren han bizit zen. Etsaigo horrek, bestalde, argi erakusten digu nolako ezinikusiak sort zen ziren bat zuetan musikarien artean, lanpostuen ezegonkortasuna eta soldata eskasa zirela medio. Juan Sierrak, berriz, *Círculo Carlista* elkarteko pianista-postuarekin konformatu behar izan zuen. Geroago, udal-bandako zuzendari izendatu zuten.

1902an irit si zen, bada, Alfonso Ugarte Lizarrara (Nafarroa), eta han bizi izan zen, heriot zak gazterik eraman zuen arte. Han jarri zen behin betikoz bizit zen, eta handik gut xira ezkondu zen Carmen Vicuñarekin, herriko familia ezagun bateko alabarekin. Hiru seme-alaba izan zituzten: J ulio, apaiza eta aitaren jarrait zailea musikari-lanetan; María del Puy (herriko orduko posta-administrat zaile Joaquín Nabaskuesekin ezkondu zen) eta Federico, botikaria. Kale nagusiko 19.ean zeukan et xea familiak, herriaren erdian.

---

16. 1902k o uztailaren 12k o data du gomendio-gutunak (familiaren ar txiboan).

17. Goñi Gaztambide, 1994, 199.

Mende hasierako Lizarrak 5.700 bat biztanle zituen, merindadeko hiriburua zen, eta Nafarroako udalerrietatik hirugarren handiena, Iruñea eta Tutetaren atzetik[18]. Aldaketa- eta aurrerabide-korronte berriei ateak zabaldu zizkien hiriak (argindar elektrikoa, ur korrontea eta estolderia irit si ziren), iraganeko gerrate zibilen zauriak, pixkanaka, sendat zen zituen bitartean. Nabarmena zen artean, biztanlerian, azkeneko gerrate karlistak eragindako gizaseme-galera eta alargunen ugaritasuna. Horietako askok eskea beste bizibiderik ez zuten. Hiru sektore hauek zituzten bizibide nagusi lizarratarrek: nekazaritza, txikizkako merkataritza eta artisau-tailerrak. Denboraren poderioz, fabrikak irent si zituen eskulangileen tailerrak (zapatari, ehule, larru-ontzaile, ebanista, zurgin, zahatogile eta abarrenak). Lana gogorra eta urria zenez, industria-hirietara alde egin zuten zenbait gaztek. Hiriko goi-klaseak, berriz, merkatari aberat sek, abokatuek eta medikuek osat zen zituzten. Ideologia politikoari zegokionez, kontserbadorismoa eta karlismoa ziren nagusi. Horrekin batera, eragin handia zuen kleroak herritarren pent saeran. Hiru parrokia nagusi zituen Lizarrak (San Pedro Ruakoa, San Migel eta San Joan), eta bi kapilautza (Puiko Ama Birjinarena eta Ospitalekoa), baita erlijio-ordena ugari ere: kaput xinoak, errekoletoak, eskolapioak (ikastet xe berria eraikit zen ari ziren garai hartan), moja beneditarrak, klaratarrak eta Karitateko Ahizpak, iritsi berriak. Horiez gain, kofradia eta elkarte elizkoi ugari zeuden, eta horietako kide ziren herritar gehienak (Alfonso Ugarte, adibidez, Karmengo Ama Txit Sainduaren kofradiako partaide zen).

XIX. mendearen amaieratik hedat zen ari zen asoziazionismoa, eta kasino eta elkarte ugari zituzten goi-klaseek, tertuliak, jokoak eta bestelako jarduerak (kont zertuak, ant zerki-emanaldiak, dant zaldiak...) antolat zeko. Elkarte horietako bat zuek ez zuten inongo kidetasun ideologikorik ( *Liceo Estellés* eta *Sociedad Nuevo Casino* elkarteek, adibidez); beste bat zuek, aldiz, kut su politiko nabarmena zuten ( *Círculo Carlista* eta *Casino Dinástico Estellés*, adibidez)[19]. Elkarte horiez gain, euskal abert zaletasunaren inguruko jendeak bultzatutako zirkulu berri bat eratu zen XX. mendeko lehen hamarkadetan. Geroago ikusiko dugunez, garrantzi berezia izan zuen zirkulu horretan Alfonso Ugartek. 1900ean, Langileen Zirkulu Katolikoa ( *Círculo Católico de Obreros*) sortu zen, zeinak kristautasunaren balio moralen it zalpean elkartu nahi zituen langileak, sozialismoaren edo anarkismoaren doktrina materialista eta antikristauetatik urrunt zearren. Zirkuluko [20] zenbait dokumentuk dioenez, Lizarran (industrializazio txikiko herria) ez zegoen ideologia horiek hedat zeko arrisku larririk, baina badaezpada ere, kontuz ibili beharra omen zegoen, langile-kontzentrazio handiko hirietara emigratzen zutenak 'kutsa' ez zitzaten. Hala, bada, langileen elkartasun-zirkulu gisara eratu zen elkarte hura, eta ongizate materiala eta morala ematen zien bazkideei Sorospen Kut xaren eta Aisialdi Zentroaren bitartez. Zentro horretan entretenigarri 'it xurosoak' izaten

---

18. Mende hasierako Lizarrari buruz gehiago jakitek o, ikus Itúrbide, 1982.

19. Geroago, 1917an, sortua da azken hori.

20. Ikus "Qué son los Círculos Católicos Obreros - ¿Qué es el de Estella? Historia, su necesidad, ramos que abraza, dirección y administración", dokumentua (Lizarrako Liburutegi Publikoa).

zituzten langileek, tabernetatik urrunarazten bait zituen, eta katolizismoko balioen ga ineko trebakunt za sendo a. Sa soi hartan hasi ziren agintari zibil eta elizakoak klaserik xumeenen egoeragatik kezka adierazten, eta kut su paternalista nabarmenarekin, gizartea hobet zeko eta eraldat zeko ekimenak bultzatzen, ongint za eta karitatezko erakundeak sortuz, doako irakaskunt za ezarriz, balio kristau eta gizabidezkoak irakat siz...

Testuinguru soziokultural hori zuen, bada, Lizarrako musika-jarduerak. Parrokietako elizkizunetan eta udalak herriko jaietan antolat zen zituen ekitaldi publikoetan izaten ziren musika-emanaldirik aipagarrienak. Egun seinalatu haietan, gaitarien eta bandaren musikak lagundurik egiten zituen prozesioak udalbatzak, eta ordu bat zuk geroago, dant zaldietako musika jot zen zuten gaitariek eta bandak, Foruen Plazan. Horrekin batera, auzoetan, gero eta zabalduagoa zeuden t xarangen emanaldiak, baita tarteka egiten ziren 'ezkutuko' dantzaldietan ere. Agintariek ez zituzten batere gustuko saio haiek. Lizarrako gazteek gero eta leku eta ekitaldi gehiago behar zituztenez entretenitu eta elkarrekin egoteko, udako igandeetan Los Llanos parkean dant zaldiak antolatzea erabaki zuen udalak, 1906an. Hiritik kanpo, larrainean, ezkutuko dantzaldirik ez egitea zen erabakiaren helburua, eskandalu eta t xutxu-mutxu ugariren sorburu ziren eta. Los Llanoseko dant zaldiak agintarien begirada zorrotzapean pean egiten ziren, it xura eta ordena publikoa zainduz (gaizkia saihestu ezin zutenez, hazten ez uzten saiat zen ziren). Azkenik, aipat zekoak dira zenbait elkarte eta kasino pribatutako musika-jarduerak, goi-klaseetako bazkideen gozagarriak. Zuzendari dramatiko eta liriko ba na ere ba zeukaten erakunde horietako bat zuek (Lizeoak, adibidez), zeinak ikuskizunak antolatu eta eszenarat zeaz ardurat zen ziren [21]. Ant zokia ere bazuen Lizarrak, eta kontzertuak, zarzuelak eta obra eszenikoak egiten ziren bertan.

Gehienetan, ongi trebatutako organisten esku izaten zen leku haietako musika (Feliciano Celayeta y Octaviok eta Juan Sierrak hala egiten zutela frogatuta dago). Jokabide horren zergatietako bat zen musikariek ez zutela askorik kobrat zen beren lanagatik. Ondorioz, enplegu-aniztasunari ekin behar izaten zioten, eta parrokietan jot zeaz gain, herriko bandaren zuzendari jardun edo areto pribatuetan jot zen zuten musika-taldeen buru. Halaxe egiten zuen Alfonso Ugartek. Musikari on famari esker, zenbait lanbide izan zituen: San Pedro Ruako parrokiako organista, eta San Joan parrokiakoa gero, Udal Musika Bandako zuzendaria (1920an, berregituratu egin zuen banda, eta bere unerik gorenera eraman), eta ant zoki eta lokal pribatuetako emanaldietakoa. Herriko musika-jardueraren sustat zaile nagusietakoa izan zen Ugarte. Lanbide horietatik, dena den, azpimarrat zekoa da organista eta musika sakratuaren konpositore gisara egin zuen lana. Bi eginkizun horietan eman zuen Ugartek bere bizitzako d enborarik g ehiena, e ta H ego E uskal H erriko lurretako musika sakratuaren erreformaren bult zatzaile nagusietakoa izan zen. Hasteko, gure musikariaren eginkizun horretaz arituko gara, eta gero, izan zituen beste lanbide batzuei buruz. Lanbide horiek, dena den, bigarren mailakoak izan ziren erreforma sustat zeko egindako lanaren aldean.

---

21. Ikus *Reglamento de la Sociedad de Recreo titulada Liceo Estellés* (1891) araudiaren 19. artikulua (Lizarrako Liburutegi Publikoa).

## 3. ALFONSO UGARTE, MUSIKA SAKRATUAREN ERREFORMAREN SUSTATZAILE

San Pedro parrokiako organista izendatzeak sortu zuen zalaparta itzali eta gero, karguaren jabe egin zen Alfonso Ugarte, 1902an, eta zegozkion lanei ekin zion. Tomás Larumbek Juan Sierraren aurka prestatutako araudibera jasan behar izan zuen organista berriak, baina pentsatzekoa da araudiaren aplikazioa ez zela hain zorrotza izango, ez baitzegoen inongo gatazkarik parrokoaren eta organista berriaren artean. Hona hemen organistaren eginkizunak, araudian jasoak: parrokiako ohiko elizkizunetan eman beharreko zerbitzuak (organoa jo, abesbatza zuzendu, eta kantatu ere bai); herriko festa nagusietan elizkizunak handikiro egitea (horretarako, kanpotik ekarri behar izaten zituen musikariak eta kantariak); Arrosario Santuko Ama Birjinaren kofradiatik eskatzen zizkioten ohiko lanak; kantu figuratua eta laua erakustea, egunero, parrokiako lau mutikori; organoa zaintzea eta garbitzea; eta erretoreak ezartzen zizkion gainerako aginduak betetzea. Organistaren soldata 2.500 erreal-kuartokoa zen, eta hiruhilekoaren amaieran ordaintzen zitzaion (parrokiak jasotzen zuen diruaren zenbatekoa urrituz gero, organistaren errenta ere jaitsi egiten zen) [22].

Ospakizun aipagarrienak San Frantzisko Xabierren (Nafarroako patroia) eta San Andresen (Lizarrako patroia) bederatziurrenak ziren. Zalantzarik gabe, aipatutako funtzioetatik bigarrena zen garrantzizkoena, eta herriko festa nagusiak (abuztua) baino lehentxeago egiten zen. Izan ere, San Pedro Ruako parrokian gordetzen ziren Lizarrako patroiaren erlikiak, eta egun seinalatu haietan, herri osoak jotzen zuen hara. Araudiak zioen, bestalde, parrokiako umeekin batera abestu behar zuela organistak, egunero, patroiaren omenez aste osoan ematen ziren mezetan (abuztuko lehen igandetik bigarrengora).

Herrira irit si eta egokitu zitzaizkion lehen festetan, hain zuzen ere, aho zabalik utzi zituen parrokiako eliztarrak Alfonso Ugartek, lehenbizikoz jo baitzuen Lorenzo Perosiren *Misa a tres voces de hombre* lana[23]. Emanaldi harekin, bada, Lizarrara eraman zuen Ugartek zezilianismoa, Europa osoan musika sakratuaren berehalako erreforma aldarrikatzen hamarkadak zeramatzan korrontea alegia.

### 3.1. Zezilianismoa eta erreformaren hastapenak Europan eta Espainian

Lehenengo Elkarte Zeziliatarra F.X. Witt apaizak sortu zuen Ratisbonan (Regensburg), 1868. urtean. Elkarte Zeziliatarrak ospe handia lortu zuen Europa osoan, Musika Sakratuaren Eskolaren sorreraz baliaturik eta bere doktrinak egunkarien, katalogoen eta bildumen bidez hedaturik. Eliz etako

---

22. Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa, 112. liburua, San Pedro Ruako parrokiako aktak (1860-1954): "Nombramiento de organista", 1900eko azaroak 6.

23. "Memoria del Organista Don Alfonso Ugarte", in *Crónica del IV Congreso Nacional de Música Sagrada,* 1930, 161.

musika-errepertorioa berritzeko eta genero profanoak eta antzerki-generoak baztertzeko ahaleginak egin zituen, baita musika kristauaren jatorrizko sustraietara itzultzearen alde jardun ere. Ildo horretan, kantu gregorianoa eta Errenazimentuko erlijio-polifonia berriz ezartzeko eginahaletan aritu zen. Ratisbonako Elkarte Zeziliatarraren eta Musika Sakratuaren Eskolaren inguru-ra, konpositore multzo handia bildu zen (haien artean, Haller nabarmendu behar da bereziki), eta konpositore horiek liturgiarako errepertorio polifoniko berria eta latinaz bestelako hizkuntzetan idatzitako erlijio-kanta herrikoi ugari konposatu zituzten. Inspirazio-iturriak, hain zuzen ere, gorago aipatutako bi ereduak –kantu gregorianoa eta erlijio-polifonia– izan ziren. Elkartearen irizpi-deak nagusituz joan ziren pixkanaka arau-izaera nabarmenaz, katalogoen argi-talpen eta hedapenaren bidez. Katalogo horietan, elizan jotzeko egokiak ziren konposizioen aldeko iritzia ematen zen, eta bazterturik geratzen ziren kata-logoetako zerrendetan ez zeuden konposizio guztiak. Mugimendua, gerora, Europa Hegoalderantz zabaldu zen[24].

Frantzian ere, mendearen erdialdean, elizetan genero sinfonikoa, opera-musika eta areto-musika erabiltzearen aurkako joera sortu zen. Izan ere, ez zegoen ia bereizkuntzarik genero profanoaren eta erlijiosoaren artean, ezta organo-estiloaren eta piano-estiloaren arteko ezberdintasunik ere. Niedermayer-ek, 1853an, musika sakratu eta klasikoaren eskola sortu eta aldizkari bat kaleratzeari ekin zion, kantu lauan kantu gregorianora, polifonian Palestrinaren eredura eta organoan Bachen konposizioetara itzultzeko joera hedatzeko nahiak eraginda. Eskola horretan trebatu ziren, besteak beste, F. Fauré, E. Gigout eta A. Messager konpositoreak, eta horiek, C. Franck eta beste organista bat zuekin batera, Organoaren Eskola Erromantikoa sortu zuten Frantzian[25]. Geroago, Pariseko *Schola Cantorum*ekin lotura zuten kon-positoreak (Vicent D'Indy, Charles Bordes, eta abar) izan ziren erlijio-musika-ren erreformaren zabalkundea defendatu zutenak. Aipatu ditugun konpositore horiez gain, ezin dugu ahaztu Solesmeseko fraide beneditarrek egindako lana, kantu gregorianoa indarberritu bait zuten jatorrizko iturriei buruzko azter-lan zientifiko eta paleografiko batean oinarrituta (milaka urteko kantu horren pneumak edo hasierako notazioa ikertu zituzten eta). Kantu gregorianoak zabalkunde handia izan zuen Espainian eta Italian.

Italiako konpositoreek, hain zuzen ere, bat egin zuten Alemaniako mugi-menduarekin, eta 1880. urtean Elkarte Zeziliatar Orokorra sortu zuten. Erreforma sustatzen aritu zen elkarteak lehenengo urteetan zailtasun han-diak izan zituen, indarrean zegoen antzerki-estiloaren zaleak ziren elizgizon askoren erresistentzia handia pairatu behar izan zuelako, batez ere Erroman. Hala eta guztiz ere, Sarti kardinalak (gero Pio X.a izango zena) eta Vatikanoko Kapera Sixtinoko buru zen Perosik ("XX. mendeko Palestrina" izengoitia jarri zioten), nazioarteko ospea zuen konpositoreak, erreformari eman zioten bultzada handiari esker, finkatzen hasi zen azkenean. Oso ondorio eskasak

---

24. Zezilianismoak Alemanian eta Italian izandako informazio gehiago jasotzeko, ikus Weinmann, 1916.

25. Ikus Elizondo, 2002, 47.

izan zituzten dekretu bat zuen ondoren, Pio X.ak agiri bat plazaratu zuen 1903. urtean, *Motu Proprio* deiturikoa, doktrina horiek behin betiko ezart zen zituena eta mugimendua herrialde katoliko guztietan zabalt zeko bidea ematen zuena.

Espainiari dagokionez, jadanik adierazi dugu XIX. mendearen erdiaz geroztik urrats batzuk emanak zirela gainbehera-egoera gainditzeko eta elizetan jot zen zen musikari duintasuna emateko [26]. Erreformaren sustat zaileek ahotan hart zen zuten gerren eta desamortizazioen ondorioz sortu zela krisi-egoera orokorra. Desa mortizatzeko n eurriek bere kin ekarri zituzten katedral eta elizetako musika-kapera gehienen hondamendia eta eraispena, eta halaber, kapera horiek funt sezko euskarri ia bakarra zuen musika-irakaskunt zaren azpiegituren gainbehera eta hondamendia. Musika-trebakunt zan hut sunea egotea XIX. mendeko gaitz endemikoa izan zen, harik eta, burgesiaren babespean, akademien eta kont serbatorio en azpiegitu ra berria zabald u zen arte. Gauzak horrela, eliza-musikaren tradizioa baztertuz joan zen, eta tenpluak mota guztietako genero profanoek eta ant zerki-generoek "hartuak" izan ziren. Erlijio-musikaren esparruan, berez, XVIII. mendearen erdiaz geroz egiten hasi ziren erreforma profanoak Europa osoan, baina XIX. mendean, kritika horiei musikaren kalitate eskasa gehitu zit zaien. Izan ere, elizek musika-kaperarik ez zutenez, ezinbestez onartu behar izan zituzten kanpoko musikari eta abeslariak, eta gehienetan, piano-prestakuntza zuten musikariak aritzen ziren organisten ordez. Garai hartako hainbat testigant zaren arabera, elizetan nahiko sarri ent zuten omen ziren operako soloak eta duoak, bandek jotako doinuak, areto-erromant zak eta abar.

Alabaina, elizetan jotzen zen musikak ez zituen beti ezaugarri horiek. Mendearen erdia aldera tenpluetako musikari duintasun handiagoa eman nahi zioten ekimenak sort zen hasi ziren, eta xede horrekin musika mota horri lotutako tradizio ahant zietara jo zuten. Horixe egin zuen, hain zuzen ere, Hilarion Eslavak, oro har musikaren pedagogiaren alorreko arazoak eta erlijio-musikaren eta organo-musikaren irakaskunt zakoak konpondu nahian (Eslavak ahaleginak egin zituen Madrilgo Kont serbatorioan organo-katedra sort zeko). Joera horri jarraiki, Hilarion Eslavak *Lira Sacro-Hispana* lana argitaratu zuen, XVI. mendetik XIX. mendera arteko musika-lan erlijiosoen bilduma. Pedrell konpositoreak ere katedraletako art xiboetan gordet zen zen musika-ondarea berreskurat zeko eta aztertzeko interesa bereganatu eta garatu zuen, eta mendearen azken hamarkadan *Salterio Sacro-Hispano* eta *Hispanie Schola Musica Sacra* bilduma handiak argitaratu zituen, XVI. mendeko hispaniar erlijio-polifoniaren egile nagusiei buruzko monografiak (Cabezón, Morales, Victoria eta Guerrero) plazarat zeaz gain. Era berean, Solesmesen abiarazitako kantu gregorianoaren indarberritzen hasi zen, 1880. urtean fraide beneditarrak Silosera iristearekin batera, eta Aita Eustaquio Uriartek egindako hedapen-lanari esker, Uriartek musika mota hori ikasteko metodo bat idat zi bait zuen.

---

26. Espainiak o er lijio-musikaren egoeran eta er reformaren lehenengo ur ratsetan sak ontzeko, ikus V irgili (2003) eta Nagore (2003) egileen ar tikuluak, eta Elizondo (2002, 45-109), lehenengo atala.

Gainera, pianista askok prestakuntza eskasa eta generoak nahasteko eta inprobisatzeko joera zutenez, eginahalak egin behar izan zituzten organoaren tradizio historikoa berreskuratzeko. Hilarion Eslava aurrekari garrantzitsua izan zen ekimen horretan, organo erromantikoko berria eztzea sustatu zuelako eta *Museo orgánico español* monografia handia argitaratu zuelako. Lan horretan, artean ere italiar joerakoak ziren eta hispaniar organo barrokoan jotzeko ziren musika-lanak jaso zituen. Nolanahi ere, organisten eskola berri hori arian-arian sendotu zen, organo erromantiko berria eta Europa Erdialdeko estiloa (batez ere frantsesen eskolaren eragina zuena) ere pixkanaka ezarriz joan ziren neurrian. Estilo horretako adibide dugu Tolosan organista aritutako Gorriti, Eslavaren ikaslea. Berez, gero egiaztatu ahal izango dugun bezala, erreformaren bultzatzaileek parrokietako hispaniar organo barroko zaharren modernizazioa sustatu zuten irmotasunez, organo erromantikoaren soinu-ezaugarriak (soinu lodia eta aberatsa) eta adierazpen-aukera handiagoak parekatu bait zituzten (intent sitatea mailakatzeko, eta horrela, ñabardurak sortzeko pedal bat gehitu zioten) musika sakratuaren idealarekin [27].

Hainbat argitalpenetan lan polifonikoak eta organorako lanak berreskuratzearekin batera, estiloan joera berria nagusitu zen, konposatzeko orduan. Alderdi hori begien bistakoa da dagoeneko Hilarion Eslavak sortutako erlijio-musikan, bere lan horietan bilakaera bat hauteman baitaiteke: opera-estiloaren naturalkerieta tik urrundu eta antzinako polifonian oi narritutako estilo soilagoari lotu zitzaion. Joera "soil" eta berritzaile horren sendotzea argi eta garbi ikus daiteke zenbait konpositorerengan, hala nola Gorriti edo bere ikasle Bizente Goikoetxearengan. Izan ere, konpositore horiek musikan nagusi zen italiar joera arrunta betiko bazter utzi eta Europa Erdialdeko eta Erromantizismo osteko mintzaira berria bereganatu zuten. Gehienek, antzinako erlijio-polifonian oinarritutako izaera soilaren aldekoak izan arren, hainbat ahotsetarako piezak (estilo *concertante*a) idazten jarraitzen zuten, joera zeziliatarrek aldarrikatzen zuten "a capella" purismoarekin guztiz bat egiten ez zuen estiloaz. Alabaina, erreforma-mugimenduak funtsezko eragina izan zuen Euskal Herriko organisten prestakuntzan.

Gauzak horrela, 1896. urtean, "musika-hitzaldiak" antolatu ziren, eta erreformaren alde ari ziren Espainiako, Italiako eta Frantziako konpositore ospetsuak bildu ziren hitzaldietara [28]. Ekitaldia eskaini zen banden eta orfeoien nazioarteko lehiaketa batean, epaimahaian musikaren munduko pertsona ospetsu ugari zeudela baliaturik. Izen handiko pertsonen artean, Pedrell, D'Indy, Guilmant, Bordes eta abar zeuden. Hala, lehenengo "biltzar" horrek Pariseko *Schola Cantorum*eko ordezkariak (D'Indy, eta abar), Paduako *Capella Antoniana*koak (Tebaldini, erreformaren sustatzailerik handienetakoa Italian), eta Madrilen sortu berria zen eta, era berean, erlijio-musikaren erreforma sustatzen zuen Elkarte Isidorotarrekoak. Topaketa hartan Pedrell, Bordes eta Tebaldinik, besteak beste, zirriborratu zuten ideologiak musika

---

27. Erreformak organo erromantikoa bereganatzeari buruz, ikus *"1.6. El Motu Propio de Pío X y los Congresos de Música Religiosa"* epigrafea, Elizondoren I. Atalean, 2002, 80-92.

28. Musika-hit zaldi horiei buruzko gehiago jakitekoa, ikus Nagore, 2003.

sakratuaren erreforma babesten zuen: beren ikusmoldearen arabera, erreforma uztartuta zegoen Europa Hegoaldeko hiru herrialde horietako musika-kulturaren pizkundearekin. Musika sakratuaren erreformak lotura argiak ditu garai hartako beste mugimendu bat zuekin, alegia: historizismoarekin edo nazionalismo musikalarekin. Topaketan parte hartu zutenek argudiat zen zuten liturgia katolikoaren tradizioan sustrai partekatua zegoela, eta XVI. mendeko polifonia (Palestrinaren aldekoak ziren, iparraldeko Bach konpositorearen aurrean) eta kantu gregorianoa indarberrit zea defendat zen zuten, herrialde katolikoen ondarearen adierazgarri gisa. Hala, tradizio historikoa berreskurat zeak berekin ekarri zuen musika nazional eta erlijiosoa berrit zea, eta berrikunt za horren bidez aurre egin nahi izan zioten ant zerki-estilo efektista eta zaharkituko musika-giro hartan nagusi zen gainbeherari. Ekimen horiek guztiek ondorio eragingarriak izan zituzten Euskal Herriko elizgizon eta organisten belaunaldi gaztearengan, eta XX. mendearen hasieran, parrokietan jotzen zen erlijio-musikaren errepertorioa berrit zeari ekin zioten.

### 3.2. Lehenengo urrat s bakanduak

Ezbairik gabe, Alfonso Ugartek aspaldidanik ezagut zen zituen erreforma-giroak, Lizarran egin zuen lana benetan aurrendaria izan zelako. Mendearen hastapenetan, dagoeneko, Alemaniako eta Italiako zezilianismoan jatorria zuten joeren errepertorioa ezagut zen zuen, eta Lizarrako parrokietako musika-bizitzan errepertorio hori hedat zen saiatu zen. Ugartek Perosi, Ravanello eta Haller egileen lanak, batik bat, eman zituen ezagut zera. Bere art xiboan, beste musika-lan bat zuk ere badira, antologiak eta estudioak, Penint sulan hedatuz joan ziren erreforma-saioak (Pedrellen eta Eslavaren antologiak, eta abar) ezagutzen zituela egiaztat zen dutenak. Euskal Herriko organisten artean, finkaturik zeuden musika-ohiturak errotik aterat zeko eta arian-arian erreforma ezartzeko gurut zadari ekin ziotenetako bat izan zen Ugarte, *Motu Proprio* agertu baino lehenago ere. Ugartek eta beste organista batzuek hasitako eginkizuna ez zen inolaz ere samurra izan, parrokia gehienetan oso harrera ona zuen musika-errepertorio arina eta opera-estilokoa ent zuten ohituta zeuden elizgizonen eta eliztarren aurkako jarrerarekin egin bait zuen topo. Musika Sakratuaren IV. Bilt zar Nazionalaren gaineko t xostenean, Alfonso Ugartek honela deskribatu zuen Lizarrara heldu zenean aurkitu zuen musika-giroa: 1902ko mart xoan, oposizioak egin eta gero, San Pedro Ruako parrokia-elizako organo-arduradun karguaren jabe egin ginen, Lizarra hiri arras ant zinako eta ent zutetsuan. Eta nolako desilusio handia gurea, eliza guztietan jot zen zen musika-errepertorioan ia soilik Barrera, Hernández, Prado, García, Cosme de Benito, Mercadante eta beste hainbaten *arietta* eta duo groteskoak ent zuten zirela ikustean. Beraz, gozarazten zituzten kristau zint zoak ziren aldetik eliza-otoitzetara joaten ziren eliztarren belarriak. Eginkizun gait za eta ekint za ausarta, hasiberri batent zat. Hona hemen jatorrizko testuko pasarte hori:

> Era en marzo de 1902, cuando, tras de unas oposiciones, nos posesionábamos de la Organistía de la Iglesia Parroquial de San Pedro de la Rúa en la antiquísima y célebre ciudad de Estella; y ¡cuál no sería nuestro desencanto, al ver que el repertorio músico que se ejecutaba en todas las iglesias estaba poco menos

> que monopolizado por las arietas y dúos grotescos de Barrera, Hernández, Prado, García, Cosme de Benito, Mercadante y otros por el estilo, los cuales entretenían los oídos de los fieles, que asistían como buenos cristianos en masa a los cultos divinos! ¡Difícil tarea y empresa atrevida para un novato! [29]

Gorago adierazi dugun bezala, Ugartek erreformaren lehenengo urrat sei ekin zien San Pedro Ruako parrokian eta, hala, Lorenzo Perosi eta Haller konpositoreen lan bat zuk jo zituen. Errepertorio berriaren estiloaren norabide-aldaketak Liza rra herria astindu zuen. Hain batek ekimenari onirit zia eman bazioten ere, joera berriak aurkakotasun gogorrak jasan behar izan zituen [30]. Kontuan izan behar dugu erreforma, hasiera hartan, organista ait zindarien ekimenen inguruan sortu zela, eta organista haiek era isolatuan jardun behar izaten zutela, kontrako giroan. Askoz ere geroago hasi ziren zenbait herritako musikariak elkart zen, bilt zarrak antolat zen eta aldizkariak sort zen, erreforma mugimendu sendoago eta antolatuagoaren barruan zabalt zeko asmotan (Europako beste herrialde bat zuetan egin zuten bezala). Elkarte Zeziliatarra antolatu egin zen pixkanaka erreforma bult zatzeko, eta esperient zia ant zu ugari bizi izan zituzten bult zatzaileek, batik bat antolaketarik ezaren eta kontrako jarrera irmoaren ondorioz. Izan ere, ezarri nahi zuten erreformaren ohitura eta usadio berriek buruz buru zeuden ordura arte parrokietan nagusi izandako musika-, kultura- eta erlijio-ohiturekin.

Ingurune horretan, erreformak lau funt sezko aldaketa ekarri zituen bere-kin. Lehen-lehenik, musikaren izaerak musika profanoaren ikusgarritasun eta zalapartatik urrundu behar zuen, eta nor bere baitan biltzen eta jaieraz otoit z egiten lagunt zen zuen erlijio-espiritua sorrarazi behar zuen. Gainera, musikak bere eginkizuna bete behar zuen bereziki, hau da, ekintza liturgikoaren eta testu sakratuaren transmisioaren zerbit zura jarri behar zuen, jant zi xumez baina ez lander edota hut salez. Ikuslearen jarrera urruna alde batera ut zita, herriak protagonismoa berreskuratu behar zuen eta liturgian parte hartu (eti-mologiaren ikuspegitik, liturgiak zerbit zu publikoa esan nahi du, eta beraz, ezinbestekoa du herri osoaren partaidet za), kantuaz (koroaz) baliatuta, bilera liturgikoaren komunitate-izaeraren bereizgarri gisa. Hori guztia erdiet si ahal izateko, nahitaezkoa zen kristau komunitateak berezkoa zuen musika-tradi-zioa berreskuratzea eta babestea, eta kantu gregorianoaren s ustraietara, polifoniara eta erlijio-kantu herrikoira it zultzea. Erreformazaleek herri-espiri-tuaren benetako zabalt zailetzat hartu zuten kantu gregorianoa, bere soiltasun eta izaera tradizionala (duen ant zinatasunarekin lotuta) zirela eta. Horregatik, hain zuzen ere, hedatu zuten herriko jendearen artean metodo eta argitalpen errazen bidez. Beste horrenbeste gertatu zen erlijio-polifoniarekin, musika mota horri izaera herrikoia erant si nahi izan bait zioten parrokietako abes-batzek errazago kantat zeko moduko argitalpenak plazaratuta [31].

---

29. Ikus "Memoria del Organista Don Alfonso Ugarte", in *Crónica del IV Congreso Nacional de Música Sagrada,* 1930, 161.

30. *Ibídem.*

31. Erreformaren eta musika herrikoiaren arteko loturetan sakontzeko, ikus Rebours, 2003.

Eta kantu gregorianoa eta polifonia herrikoia bihurtzeko ahaleginak egin arren, jardun horiek guztiz arrotzak ziren eta buruz buru egiten zuten finkatutako gustu eta ohiturekin. Eliztarren komunitatearentzat, beren parrokietako elizkizunetan egunero entzun ohi zituzten opera-aireek eta areto-doinuek osatuta zegoen tradizioa. Nola abertzaletasunak biziberritu zituen folklorearen inguruko jardunak[32], hala erreformak ere, ne urri batean, berekin ekarri zuen tradizio berrasmatua herrikojendearen artean ezartzeko beharra. Xedea ez zen zehazki tradizio bat berreskurat zea, tradizioa sortzea baizik, eta jardun berriak ezarian-ezarian txertatzea eta jendeak bereganatzea. Alabaina, tradizioa berrasmatzeko xede hori erlijio-komunitatea eta herriko jendea hezita soilik mamitu zitekeen. Beharrezkoa zen, hortaz, koru-elkarteak heztea (orfeoiak elkarlanean aritu ziren estuki, erlijio-polifonia hedatzeko orduan), baita musika-kaperak, parrokietako abesbatzak eta herriko jendearen gustuak ere, errepertorio berria bete-betean barneratu zezaten. Horrez gain, lehiaketak eta sariketak (euskal abertzaletasunaren hedapenean ere arurki daitekeen baliabidea) lagungarriak izan ziren erreformaren espiritua zabaltzeko eta ezagutzera emateko.

Alfonso Ugarte eginkizun pedagogiko horri lotu zitzaion Lizarran, 1902. urtetik aurrera [33]. Lehenengo urratsak ematean, lagun izan zuen Joan Ebanjelista Ibero aita kaputxinoa. 1903an, kaputxinoen ordenak Rocamadorreko Andre Mariaren babespeko Eskola Serafikoa ireki zuen, Ugarte organista aritzen zen parrokiatik gertu. Eskolak, hasiera batean, 50 ikasle izan zituen, baina ibilbide laburra burutu zuen, hiru urte geroago, 1906an, itxi egin baitzuten. Artean, bertara joaten ziren 33 ikasleak Altsasun ireki berria zen seminariora joan ziren. Eskolako zuzendaria, Aita Ibero, gizon kementsua zen, eta buru-belarri saiatu zen, dena emanez, abertzaletasuna sustatzen. Eskolako Zuzendaritzan kargua hartu baino urtebete lehenago, zeresan handia sortu zuen Iruñeko katedralean abertzaletasunaren aldeko sermoia egin zuenean. Polemika prentsara irit si zen, eta hainbat salaketa ere egin ziren auzitegietan. Lizarrara iritsi zenean, euskal abertzaletasunaren gune aktibo bilakatu zuen eskola, eta urte batzuk geroago, horrexegatik hain zuzen, Hijar aldera (Teruel) erbesteratu zuten. Bertan hil zen, oraindik gaztea zela, 1909an [34]. Abertzaletasunaren gune sustatzaile hura, Alfonso Ugarterekin eta beste apaiz kaputxino batekin, Aita Renteriarekin, sortu zuen Aita Iberok. Hiru gizonek, alegia, Ugartek, Aita Iberok eta Aita Renteriak taldea sortu zuten, euskal idealak eta musika sakratuaren erreforma sustatzeko asmoz.

Aita Renteria elkarlanean aritu zen urte batzuk geroago Ugarterekin, erlijio-kanta herrikoiak euskaraz sortzeko helburuz. Renteriak deboziozko poesia batzuk idatzi zituen, eta konpositoreak musika jarri zien. Lehenago adierazi dugun bezala, erlijio-kanta herrikoien errepertorioa herri-hizkuntzan sortzea,

---

32. Ikus Sánchez Ekiza, 2005, 211-213.

33. Ugartek Lizarran egindako irakaskuntza-lanaren xehetasunak ezagutzeko ikus "Memoria del Organista Don Alfonso Ugarte", in *Crónica del IV Congreso Nacional de Música Sagrada,* 1930, 161-163.

34. Eskola Serafikoari eta Aita Iberori buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Grández, 2000, 39-41.

musika sakratuaren erreformak bultzatutako helburu garrantzitsuenetakoa izan zen. Eta organista sustatzaile askok euskal kulturaren loraldiarekin zerikusi zuzena zutenez, erreformak modu erabakigarrian bultzatu zuen euskararen erabilera liturgia-ekintzetan eta herri-debozioetan. Aita Donostiak, esaterako, latinez idatzita zeuden kantuei euskarazko letra jarri zien, eta bertako kulturako gabon-kantak ere bildu eta harmonizatu zituen. Era berean, erlijio-kanta herrikoien errepertorioa sortu zuten, euskal doinuetan oinarrituta.

Ugartek hasieratik eskaini zion Aita Iberori bere lankidetza, *Schola Puerorum* sort zeko. Eskola erreformaren ideal berriak zabaltzeko lehenengo saioa izan zen. Konpositoreak gazte haien ahots zuriak trebatu zituen, mezen, ereserkien, eukaristia-kantuen, Andre Mariari eskainitako kanten eta liturgiaz kanpoko polifonia herrikoen bidez. Musika sakratuaren errepertorioa banatuta zegoen: alde batetik, elizkizunetan baliatzen ziren konposizioak zeuden, eta bestetik, herri-izaerako debozio anitzetan erabiltzen ziren liturgiaz kanpoko konposizioak. Liturgiari lotutako errepertorioan, aipatzekoak dira meza, Andre Mariari eskainitako kantak eta eukaristiakoak, otoitz-orduak (parrokietan ia soilik bezperak eta arratseko otoitzak ziren) eta hilen ofizioa. Azken atal horren barruan, hain zuzen ere, erreforma kantu gregorianoa eta erlijio-polifonia, ant zinakoa zein iraganeko ereduetan zedarrituta zegoen berriagoa (joera zeziliatarrari atxikitako konpositoreek sortua), indarberritzen saiatu zen. Bestalde, liturgiaz kanpoko errepertorioaren osagarri ziren lehendabizi gaztelaniaz eta gero euskaraz sortutako era askotako kantak: herri-debozioetan erabiliak eta Ama Birjinari, San Joseri, Jesusen Bihotzari eta abarri eskainiak, eta halaber, herrietako zaindari eta ama birjina ugarien omenez sortuak (San Andresen bederatzi ziurrenak, eta abar). Errepertorio horretako kanta gehienek egitura errazagoak zituzten, eta doinuen inspirazio-iturriak, berriz, kantu gregorianoak eta herriko folklorea ziren.

Alfonso Ugartek bere lan aitzindariari ekin eta berehala, erreformari bultzada erabakigarria eman zion Pio X.a aita santuak 1903. urtean kaleratutako dokumentuaren bitartez, hau da, Musika Sakratuaren Kode Juridikoaren bitartez (edo *Motu Proprio*, izen horretaz ezagunagoa baita). Dokumentua kaleratu ondoren, erreformaren eginkizunari hasiera eman zioten organista guztiek aita santuaren erabateko babesa izan zuten, jaiera eta zorroztasun handiagoz jarraitzeko. Alfonso Ugarte kode juridiko berria San Pedro Ruako parrokian ezartzen hasi zen, eta katekesira joaten ziren neska-mutil talde bat kantu gregorianoan trebatu zuen. Garatu behar zuen egitaraua oso konplexua zen, Ugarteren taldeko gazteak herriko jende xumea zirelako, eskolatu gabeak. Gerora, gizonezko hutsez osatutako parrokia-abesbatza sortu zuen, eta errepertorioa handitu, meza gregorianoak eta pieza liturgikoak erantsiz (Mendekoste, Pizkunde, Gorpuzti garaietako *sequentia*), eta euskarazko kanta herrikoiere sarbidea emanez (bederatzi ziurrenak, gabon-kantak eta abar). Halaber, Italiako joera zeziliatarrari lotuta zegoen Ravanello konpositoreak sortutako meza korala entseatu zuen.

Errepertorio horri interpretatzean lizarratarren miresmena sortu zuten; izan ere, Ugartek eginahalak egin zituen korua trebatzeko, ezin hobeto kanta zezaten. Arrakasta horri esker, beste bultzada bat eman zioten erre-

formaren mu gimenduari, eta horrela, h iriko beste bi parrokietak o (San Joan Bataiat zailea eta San Migel) organisten, Moisés Baylósen eta Andrés Hermoso de Mendozaren, at xikimendua lortu zuen Ugartek. Bi lankide horiekin elkarlanean, urrat s berriak eman zituen Ugartek erreformaren ildoak Lizarrako parrokietan ezart zeko bidean. Hiru organistek hilen ofizioa kantuliburu gregorianoaren arabera egiteko eskatu zieten parrokietako kabildoei eta gainerako apaizei, ordura arte ofizioaren interpretazioa benetan eskasa izaten bait zen. Baiet za eman zuten guztiek, eta eskuliburuak erosi eta probasaioak egin ziren. Horrela, erreformak hiriak bultzatutako tradizio berria errotzen hasi zen.

### 3.3. Erreforma finkatu eta hedat zen hasi

Denboraren poderioz, Alfonso Ugartek sustatutako erreformak jasan zuen hasierako isolamenduak bidea eman zion hirian gero eta indar handiagoa eta jarraitzaile gehiago zituen mugimenduari. Adierazi behar dugu, orobat, urte horietan ere hainbat herritako organisten eta erretoreen ekimen partikularrak mugimendu zabalago batean elkart zen hasi zirela, estatu osoko mugimenduan, hain zuzen ere [35]. 1907an, Musika Sakratuaren Lehen Bilt zarra egin zuten Valladolide n, 1896an Madrilgo Elkarte Isid orotarraren sort zaileetako bat izandako Cos kardinalaren eta musikari garrant zitsu bat zuen babespean (hala nola, Goikoet xea eta bere ikaslea izan zen Aita Nemesio Otaño). Lehenengo topaketa horren ondorioz, musika sakratuari buruzko aldizkaria, mugimendua antolat zeko eta erreforma zabalt zeko tresna garrant zitsuenetakoa, sortu zuten: *Música Sacro-Hispana*. Aita Nemesio Otaño aritu zen zuzendari-lanetan, eta mugimenduaren buru ere izan zen. Horrela, ordura arte nor bere kasa aritutako jarrait zaileak Aita Otañoren inguruan bateratu ziren. Aldizkariak, hortaz, sustat zaileak harremanetan jart zeko, lanak ezagut zera emateko, musika hautatua es kaintzeko eta erreformari ekiteko moduak aurkitzeko balio izan zuen. Honela gogoratu zuen Alfonso Ugartek aldizkariaren bidez egindako lana. Horra zer zioen gure musikariak hizpide dugun aldizkariaz:

> Aldizkaria musika-bizit zaren ogia izan zen, gure espiritua urte luzez elikatu zuena. Gure gidaria, hezit zailea, informazio-gunea eta lagunik onena izan genuen aldizkaria. Musika hautatua eskaini zigun, elkarrekin harremanetan jarri gintuen, eta lagun it zaltsuekin adiskidetasunezko loturak finkatzeko aukera eman zigun. Eta zerbitzu ezin hobeak eskaini zizkion aberriari eta Elizari. Hitz batez: aldizkaririk gabe, musika eraberrit zeko asmoak mamit zea ia ezinezkoa izango zela uste dugu.

Hona hemen jatorrizko testua:

> Esta Revista fue para nosotros el pan de vida musical que alimentó nuestro espíritu durante largos años. Ella fue nuestra guía, nuestra educadora, nuestro centro de información y nuestra mejor compañera; ella fue la que nos proporcionó

35. Ikus W einmann, 1916, 213-221.

> música selecta, la que nos puso en contacto y nos unió en vínculos de amistad con distinguidos compañeros, la que cooperó grandemente en nuestra formación, y la que prestó inmejorables servicios a la Patria y a la Iglesia. En una palabra; sin ella creemos que hubiese sido casi imposible llevar a efecto la restauración musical[36].

Aita Otañoren babespean, hainbat ekimen jarri ziren abian, eta horietako bat Orfeo Tracio musika-argitaletxea izan zen, musika sakratuaren erreperto-rio berriaren hainbat lan argitara eraman zituena. Aita Otañoren bidez negozio horretan sartzea erabaki zuen mugimenduko partaideetako bat Alfonso Ugarte izan zen, eta argitaletxeko bazkide akzioduna izatera irit si zen. Geroago azal-duko dugunez, enpresak izandako hainbat gorabeheraren ondorioz, bazkide sortzaileek porrot egin zuten. Gehienak borondate oneko gizonak ziren, eta erreformaren jarraitzaileak; alabaina, ez zuten negozio hori biderat zeko behar-rezkoa den eskarmenturik, ezta ezagut zarik ere. *Música Sacro-Hispana* aldiz-karia sortu zen, hain zuzen ere, musika-argitaletxe berriaren babespean, eta 1923ra arte jardun zuten ekinean. Urte hartan porrot egin zuen, erakundeak nozitutako krisiaren ondorioz. Aldizkariaren bidez plazaratutako artikulue-tan musika sakratuaren inguruko arazo garrantzitsuak eztabaidatu zituzten (esaterako, musika sakratua eta modernismoa bateragarriak ziren). Halaber, konposizio u gari a rgitaratu z ituzten. A ldizkari h orrek e ta b este a rgitalpen osagarri bat zuek erreformari at xikitako egile ospetsuenak elkarrekin harre-manetan jartzea lortu zuten, halaber, guztien la nak eta irit ziak ezagut zera ematea. Egile horien artean daude, besteak beste, Aita Nemesio Otaño, Aita Donostia, Julio Valdés (Bizente Goikoetxea entzutetsuaren iloba eta Hallerren ikaslea, Ratisbonako eskolan), Iraizoz, Iruarrizaga, Mas i Serracant, Mocoroa, Almandoz, Beobide, Busca Sagastizabal eta Guridi. Alfonso Ugarte ere aldiz-kariko kolaborat zaile finkoa zen, eta bere erlijio-lan batzuk bertan argitaratu zituen. Aldizkariaren bidez eman zuen bere burua ezagutzera, eta aldi berean, beste zenbait konpositore kideren lana ezagut zeko egokiera izan zuen. Izan ere, Ugarte garai hartako mugimenduko kide eta konpositore nabarmena zen.

1907ko Valladolideko bilt zarraren ondoren, beste bi egin ziren, Sevillan (1908an) bata eta Bartzelonan (1912an) bestea. Azken bilt zar horretan eratu ziren Elkarte Zeziliatarra eta Bartzelonako gotzaindegiko zentsore-batzordea, *Motu Proprio* dokumentuko agindu berriekin bat etozen konposizioei onirit zia emateko, gero elizetan jo zit zaten. Alfonso Ugarte zentsore-batzordearen onespena izan zuen lehenengo konpositoreetako bat izan zen, eta hala, Iruñeko argitaletxe batek (Arilla Etxea) erlijio-lan bat zuk argitaratu zizkion, *Música Sacra* bildumaren barruan. Bitartean, aurrera jarraitu zuen Ugartek Lizarran erreformaren tradizioa hedatzeko eta finkatzeko lanarekin.

1916ko abenduaren 29an, Alfonso Ugarte San Joan parrokiako organista izendatu zuten, ordura arte ekinean aritutako organistak, Moisés Baylosek, dimisioa aurkeztu eta gero. Moisések bere kargua utzi zuen Kalagorriko udal

---

36. Ikus "Memoria del Organista Don Alfonso Ugarte", in *Crónica del IV Congreso Nacional de Música Sagrada,* 1930, 163.

musika-bandaren zuzendaritzaz arduratzeko[37]. Ordurako, Alfonso Ugartek San Pedro Ruako elizan urte luzetan egindako lanari esker, erreformaren tradizioa guztiz errotuta zegoen parrokia hartan. 1915ean urtean, gure konpositoreak bultzatuta, San Pedro elizako organoa modernizatzeari ekin zioten, musika sakratuaren inguruko biltzarretan emandako jarraibideak betez. Izan ere, parrokia guztietan tresna hispaniar zaharren ordez egikera erromantikoko organo berriak ezartzea gomendatu zuten aipatutako biltzarretan. Parrokiako aktetan jasotzen denez[38], organo zaharraren egitura eta soinu-ezaugarri barrokoek ezgai bihurtzen zuten erreformaren musika sendo eta ozena jotzeko. Organoa aspaldian egina zenez, akatsak zituen mekanismo orokorrean, hauspoan eta tremoloan, eta erregistro zabalak eta zoliegiak zituen, zeharo zaharkituak ordurako. Beharrezkoa zen, beraz, organoa zaharberritzea eta beste erregistro batzuk gehitzea, adibidez zeru-ahotsa edo zango-biola, musika sakratua klabier bakarreko organoan jotzeko[39]. Hortaz, modernizazioari sarbidea emateko, nahitaezkoa zen hainbat erregistroren tinbrearen aldatzea, eta ondorioz, leundu egin zituzten, organo erromantikoen estetikaren arabera. Zaragozako Emeterio Inchaurbe organogileak ekin zion organoa zaharberritzeari, eta erretorearen onespena izan zuen, San Pedro, San Joan eta San Migel elizetako organistek probatu eta gero. Alfonso Ugarteren ahaleginei esker organoa modernizatzeaz gain, kantu gregorianoa eta errepertorio berria parrokiako ohiko jardunen artean finkatu ziren. 1917an, San Pedro elizako organista berriak, Silvestre Peñas Etxeberria jaunak, bete beharreko eginkizunen artean, esate baterako, lan berriak zituen: adibidez, egunero lau haurri kantu figuratu eta lauko eskolak ematea, eta batez ere musika gregorianoko eskolak, gizonezkoen korua eta neska gazteena kantu gregorianoetan trebatzeko. Era berean, beharrezko probasaioak egin beharko zituen, elizkizunetan egoki jarduteko, eta erretoreak hala agintzen zuenean, kristau-ikasbideko ikasleei elizkizunetako kantak irakatsiko zizkien[40].

Ugarte San Joan Bataiatzailea parrokiara lekualdatzea une gogoangarria izan zen bere ibilbidean, eta erreformaren balioak Lizarra hirian arian-arian finkatzea ekarri zuen berekin. Izan ere, San Joan parrokia hiriko garrantzitsuena zen, erdi-erdian, Foruen Plazan, zegoelako eta familia nagusietako kideak bertara joaten zirelako. Jendetza handia elkartzen zen elizkizunetan: hiriko biztanleen hiru laurdenak. Ugartek berak esaten zuen bezala[41], parrokia hartan ohiz kanpoko gurtza egiten zen eta, gainera, bertan kokatuta

---

37. Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa, 12. liburua. Lizarrako San Joan Parrokiako erabakiak (1879az geroztik): "Nombramiento del organista", 1916ko abenduaren 29an, 50-51.

38. Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa, 112. liburua. San Pedro Ruako parrokiako aktak (1860-1954): "Restauración del órgano", 1915eko urriaren 7an.

39. *Ibidem.* Organoharen historiari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Sagaseta, 1985, 135-139.

40. Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa, 112. liburua. San Pedro Ruako parrokiako aktak (1860-1954): "Nombramiento del organista", 1917. urtea.

41. Ikus "Memorias del Organista Don Alfonso Ugarte", in *Crónicas del IV Congreso Nacional de Música Sagrada,* 1930, 163.

zeuden Andre Mariaren Gazteen elkarteak. San Pedro Ruakoko tresnaren egikera xumearekin alderatuta, San Joango organoa erromantikoa zen, bi klabierrekoa, eta "aleman-tankerako" pedal-klabierra zuena, Pedro Roqués Etxeak 1872an ezarria [42]. Musikariak hirian bereganatu zuen ospe handiaren ondorioz, Fabrikako Bat zordeak zuzenean izendatu zuen organo-arduradun, oposiziorik egin gabe. Aktetan jasot zen den ez, gizon zint zoa, musikari eta organista zint zoa, trebea eta jakint sua zelako aukeratu zuten Alfonso Ugarte Leturia jauna[43].

Alfonso U garte 1917ko urtarrilaren 7an lotu zi tzaion Sa n Joan Bataiat zailea parrokiako ibilbideari. Organista berriak bere gain hartu zituen 1894ko araudian jasotako betebeharrak, bere aurrekoak ordura arte betetako berberak. Haien artean, ohiko eginkizunak zeuden, hala nola, organoa jotzea parrokiako ohiko eta ezohiko elizkizun guztietan, minerbetan eta elizako jai handietako (Pazko Eguna, Domu Santu etab.) meza guztietan, San Frantzisko Xabierren eta San Joseren omenezko marianak haurrekin abestea, berak aukeratutako parrokiako lau haur kantu lauan eta kantu figuratuan trebat zea eta organoa zaint zea[44]. Idat ziz jasota dauden betebehar horiek ez dute adit zera ematen erreformako jardunak zabalduta zeudenik. Bada, ordea, salbuespen t xiki bat. Ohart xo batean honako jarraibide hauek zehazten dira: erlijio-musika jo behar dela eta doinu profanoak baztertu, eta elizkizunen denboran organistak ezingo duela jo pianoa edo beste tresnaren bat ez elkarteetan, ez dant zaldietan, ezta et xean ere. Ez dago kantu gregorianoa erabilt zen hasia ote zen argit zen duen aztarnarik. Dena den, kontuan izan behar dugu araudi hori oso goiz idat zi zela, 1894an, nahiz eta berariaz idat ziz jasota ez egon. Moisés Baylós, parrokiako aurreko organista, hasia izango zen ziur aski erreformaren ideologia pixka naka zabal tzen. 1928an Ga steizen eginda ko Bilt zarrari buruzko txostenean, Alfonso Ugartek adierazi zuen bere aurrekoak lan handia egin arren, asko gerat zen zela artean egiteko alor horretan.

Ugarte lanean eta probasaioak egiten hasi zen, eta gizonezkoz eta emakumezkoz osatutako abesbat zari soinu gregorianoak, herri-kantak eta liturgiako eta liturgiaz kanpoko konposizioak irakasten [45]. 1918an, parrokiako organoa zaharberritzea proposatu zuen gure musikariak. Aquilino Amezuak, erreformako ideologoen artean organo erromantikoaren ezarpena sustatu

---

42. San Joan par rokiako organoaren historiari bur uzko infor mazio gehiago lor tzeko, ikus Sagaseta, 1985, 122-132.

43. San Joan Parrokiako artxiboa, 12. liburua. Lizarrako San Joan Bataiat zailea parrokia-elizako erabakiak (1879az geroztik): "Nombramiento del organista", 1916k o abenduaren 29an, 50-51.

44. San Joan P arrokiako ar txiboa, 12. libur ua. San Joan Bataiat zailea par rokia-elizako erabakiak (1879az geroztik): "Derechos y deberes del organista de la par roquia de San Juan Bautista de la ciudad de Estella", 1890ek o maiat zaren 20an, 32v.

45. Ikus "Memorias del Organista Don Alfonso Ugar te", in *Crónicas del IV Congreso Nacional de Música Sagrada,* 1930, 163.

zuen organogile ospetsuak, egin zizkion aldaketak parrokiako organoari [46]. Parrokiako koruarekin probasaioak egiteaz gain, musika-kapera eratu eta trebatu zuen Ugartek, elizkizun handietarako. Musika-kaperaren errepertorioa zailagoa eta hautatuagoa zen. San Pedro parrokian, baliabide gutxiago zituenez, kanpoko musikariengana jo behar izango zuen ustez elizkizun handietarako. Alfonso Ugartek joera berriaren espirituarekin bat ez zetozen konposizioak errepertoriotik kendu eta bertako eta kanpoko egile modernoen lanei eman zien sarbidea.

Bere art xiboan, zerrenda batean, erreformaren idealekin alderatuta antzinako generoa eta estilo zaharkitua zituzten lan guztiak daude jasota. Horien egileen artean izen ospetsuak ere badira: adibidez, Ledesma, Eslava, Gorriti, eta batez ere Calahorra, Prado, García, Barrera eta Hernández. Eta hona hemen bit xikeria bat: Ugarteren eta bere osaba Juan Leturiaren lanak ere azaltzen dira: osabaren bi letania lau ahotsetan, eta Ugarteren konposizio goiztiar bat (*Gozos a Santa Ana a tres voces*). Haurrek Musika Kaperan kantatzen zuten errepertorioari dagokionez, pieza gregorianoak eta, batik bat, Euskal Herriko eta atzerriko egile modernoen lanak ziren nagusi: Nemesio Otaño (obra gehienak bereak ziren), Haller, Ravanello, Perosi, Casimiri, Iraizoz, Alfonso Ugarte, Goikoetxea eta Aita Donostia egileenak funtsean. Konposizioen zerrendan, Palestrinaren lan bakar bat dago jasota. Alfonso Ugartek ez zuen, ziur aski, ant zinako polifonia bereziki landu, bere artxiboan Palestrinaren eta Tomás Luis de Victoriaren lan bakan bat zuk baino ez baitaude jasota.

Gure konpositoreak San Joan Bataiatzailearen parrokian jardun zuen hil arte, baina beste hamaika zeregin gauzatu zuen Lizarran. Ondo merezitako ospeari esker, beste eliza batzuetako abesbatzak zuzent zeko eskatu zioten, eta halaxe egin zuen Ospitale Santuko, Eskolapioen (Eskolapioen sortzaileari eskainitako ereserki bat konposatu zuen) eta Puiko Amaren elizetan. Horietan guztietan, erreformak hedatutako errepertorio berria irakatsi zien kantariei. Bere irakaspenen eragina Lizarratik kanpo ere hedatu zen, lankideekin eta beste parrokia bat zuetako apaizekin zituen harremanen bidez, erreforma eskualdeko beste herri batzuetan zabaltzeari ekin baitzion gure musikariak. Horretan jardun zuten Ugarteren ikasle ohi batzuk ere, maisuak irakatsitako edo gomendatutako lanez baliaturik, eta musika sakratuaren aldeko ahaleginetan haren laguntza osoa izanik. Ildo horretan, ezin dugu aipatu gabe utzi Alfonso Ugartek ikasle asko izan zituela: solfeoa, pianoa, organoa, harmonia eta konposizioa irakatsi zien, batzuei postaz, Iruñean eta Oviedon bizi baitziren.

### 3.4. Mugimendua errotu eta Alfonso Ugarteren lana aitortu

Ugarteren lanek osoentzute handia hartu zuten, baita Lizarrako eskualdetik kanpo ere. Besteak beste, erlijio-konposizioen lehiaketa ugari irabazi zituen Ugartek. 1919an bigarren saria irabazi zuen, José María Beobiderekin

---

46. Aquilino Amezuak Musika Sakratuaren Biltzarretan izandako eginkizuna sakonago aztertzeko, ikus Elizondo, 2002, 83-88.

batera, Lezoko Kristo Santuaren gorazarrea konposat zeko lehia ketan. Aita Nemesio Otaño izan zen irabazlea. Eskolapioen ordenak antolatutako lehiaketa ere irabazi zuen gure konpositoreak, San José de Calasanzi, ordenaren sort zaileari, eskainitako gorazarrearen bidez. Lehenago aipatu dugunez, lehiaketak eta txapelketak suspergarri garrantzitsuak izan ziren erreformaren ideialei lotutako erlijio-lan berriak, herrikoiak gehienak, sort zeko eta hedat zeko asmoetan. Ugartek, musikari eta organista moduan lortutako ospeari esker, sari asko irabazteaz gain, lehiaketa ugaritako epaimahaietan hartu zuen parte. 1924an, adibidez, Lizarra hiriak Fray Diego de San Cristóbalen jaiot zaren laugarren mendeurrena ospat zeko antolatu zuen literatura-, musika- eta arte-lehiaketaren epaimahaiko burua izan zen. Gainera, laugarren mendeurreneko gorazarre herrikoia konposatu eta hiriko seme kuttun zenduaren omenezko ospakizunetan jo zuen.

Ugarteren izena gogotik hedatu zen, eta Iruñean, Nafarroako hiriburuan, ere hainbat lan eta kargu eman zizkioten. Iruñeko San Nicolás parrokiako organista-posturako oposaketetan parte hartu zuen, baina konposizio-ariketetan lehenengoa geratu arren, azkenean ez zen gailendu [47]. Aldi batez, *Orfeón Pamplonés* ospet suko organista izan zen gure musikaria, eta talde horrek erlijio-artearen norabide berria hedat zen eta finkat zen lagundu zuela ekarri behar dugu gogora. Ugarte hain musikari trebea zenez, Iruñeko Got zaindegiak epaimahaikide izendatu zuen, katedraleko musikari-postuetako izangaiei azterketak egiteko. Denboraren poderioz, epaimahaiburu izendatu zuten, eta kapera-maisua aukeratzeko oposaketak gainbegiratu zituen. 1925ean, Mateo Múgica got zainak, erreformaren sustat zaile handiak, elizbarrutiko batzordea sortu zuen musika sakratua sustat zeko, eta bat zordekide izateko eskatu zion Alfonso Ugarteri. Zeregin horretan erreformaren beste sustat zaile ezagun bat zuekin aritu zen elkarlanean. Bat zordekide guztietan famatuena Bonifacio Iráizoz zen, San Saturnino parrokiako organista eta it zal handiko gizona Iruñeko erlijio-musikaren arloan. Bonifacio Iráizoz eta Alfonso Ugarte aitzindaritzat jo dit zakegu, bete-betean nabarmendu bait ziren erlijio-erreperto-rio berria Nafarroako txoko guztietan hedat zeko ahaleginetan. Bi musikariak lehenengoetakoak izan ziren erlijio-lan berriak konposat zen eta kalerat zen (Iruñeko Arilla eta Luna etxeetan), eta halaber, zent sore-batzordeen epaiak gainditzen.

20ko hamarkadak aurrera egin ahala, musika sakratuaren erreformak errotzea lortu zuen, arian-arian belaunaldi berria ekinean hasi zelako, besteak beste. Apaiz gazteek uxatu egin zituzten adinekoen errezeloak, eta erreformatinko finkatu zen ia parrokia guztietan. Erreformari beraien kasa, kontrako giroa nagusi zela, ekin zioten apaiz eta organistek postu eta erant zukizun handiak zituzten ordurako, eta mugimendu berria gogotik bultzatzen eta hedatzen saiatu ziren. 1928an, Musika Sakratuaren Biltzar Nazionala egin zuten Gasteizen, eta Alfonso Ugarte Lizarrako ordezkaria izan zen. Lizarran

47. Organorako *postludioa*, Iruñeko San Nicolás elizako oposaketetarako konposatutako lana (data ez da azaltzen, baina 1910ean idatzitako pieza multzoan dago sailkatuta), dago katalogoan.

eta inguruetan ordura arte egindako lan guztiak jasot zen zituen t xostena aurkeztu zuen bertan [48]. Erreformaren ideiak hedat zen ari ziren arren, alderdi asko kolokan zeuden artean, eta Bilt zarrean horiek biderat zen saiatu ziren: adibidez, *Asociación Ceciliana Española* taldearekiko harreman trakestuak onbideratzeko e ta m usika s akratuari b uruzko a ldizkari b erria k aleratzeko beharraz mint zatu ziren. Bigarren gaiari dagokionez, Aita Nemesio Otañok garai batean sortutako eta zuzendutako aldizkariaren ordez (desagertuta zegoen) argitaratu nahi zuten. Izan ere, Alfonso Ugartek aipatutako aldizkaria berriz kaleratzen hasteko eskatu zuen bere t xostenaren amaieran.

1923an ut zi zit zaion Aita Otañoren aldizkaria kalerat zeari, hainbat gorabeheraren ondorioz Orfeo Tracio elkarteak[49] porrot egin ondoren. Elkarte horretako partaideetako bat Alfonso Ugarte zen, eta diru-ekarpenak ere egin zituen. Ikusten denez, erreformaren sustat zaileek orduko gizarte modernoaren mentalitate eta estrategia bereizgarriak zituzten, eta aukerako baliabideak, hala nola prent sa eta enpresa-elkarteak, erabilt zen zituzten beraien asmoak aurrera eramateko. Baina negozioen arloan behar besteko eskarmenturik ez zutenez, ezusteko tamalgarri bat baino gehiago egokitu zit zaien. Aita Otañok, elkartea sortu bezain laster, Ignacio Torres jauna izendatu zuen buru, baina haren gestioa ez zen izan zuzena, eta 1921ean dirut za handiak galdu eta erakundearen iraupena kolokan ut zi zuen. It xuraz, Ignacio Torresen eta Aita Otañoren asmo ona eta erreformazaletasun sut sua ez zetozen bat editorialaren negozioan kaudimena lort zeko behar ziren baldint zekin. Bazkide akziodun bat zuk kexatu egin ziren, zuzendaritzako kideek e z omen zituztelako negozioaren alderdi guztiak kontuan hart zen. Salmentak oso t xikiak ziren zinez, eta elkartea porrot egiteko zorian zegoen. Lehen krisialdiaren ondorioz, Ignacio Torresek dimititu egin zuen. Aita Otañok ere elkartea ut zi zuen, eta beste horrenbeste egin zuen aldizkariko zuzendarit za-ardurekin. Aita Otañok, biziki minduta, eskutit za idat zi zion Alfonso Ugarteri, halako gorabehera lat zak jasan ondoren aldizkarien eta editorialen munduan sart zeko asmorik ez zuela jakinarazteko [50].

Arazoak arazo, elkarteak aurrera jarraitu zuen, akziodun-bat zordeak izendatutako kudeat zaile berriak buru zituela. Aurrekoek baino trebakunt za handiagoa zuten, eta enpresa-mentalitatea ezinbestekoa negozioari eusteko. Gauzak ez ziren konpondu, ordea, eta 1931n Orfeo Tracio elkartea desegitea erabaki z uten. Bi kudeat zaile ber rien arduragabek eria eta eskrupulu rik ez a izan ziren porrotaren iturburuak, elkartearen kontura aberasten saiatu bait ziren. Lan-falta eta irregulartasunak (neurriz kanpoko soldatak etab.) zirela eta, editorial-negozioak behea jo zuen, eta salt zea erabaki zuten, baina bat-batean hartutako erabakia zenez, merkeegi saldu zuten. Elkartearen likidazioaren inguruan ere hamaika ika-mika sortu zen, inbert siogile t xikiek, besteak beste Alfonso Ugartek, eginahalak egin behar izan bait zituzten informazioa lort zeko

48. "Memoria del Organista Don Alfonso Ugar te" da, orain ar te aipatu dugun dokumentua.

49. Orfeo T racio elkar tearen ibilbidea eta gorabeherak Ugar tek jasotak o gutun ugarietan aipatzen dira. Familiaren ar txiboan daude guztiak.

50. Nemesio Otañok Alfonso Ugar teri 1924k o azaroaren 11n Donostian idat zitako gutuna.

eta beraien eskubideak betearazteko. Ugartek eta egoera berean, ezer ere jakin gabe, zeuden beste akziodun bat zuek elkarri idat zitako gutun ugariak musikariaren familiaren art xiboan daude.

*Música Sacro-Hispana* aldizkaria, mugimendu erreformistaren funt sezko ardatza, azkar asko desagertu zen: 1923an. Aldizkari horrek ordura arte egindako lan it zelaren lekukoa *Tesoro Musical* argitalpenak hartu zuen. Gerora, *Tesoro Sacro-Musical* izena ezarri zioten. Proiektuaren burua erreformaren beste sustat zaile garrant zitsu bat izan zen: Aita Iruarrizaga. Alfonso Ugartek kolaborazio-lan ugari egin zituen hizpide dugun aldizkarian, eta bere lanak ezagutzera emateko erabili zuen.

Izan ere, Ugarteren erlijio-konposizioak bi aldizkariekin izanda ko lan kidetza estuari esker hedatu ziren, neurri handi batean. Era berean, musika sakratuari buruzko hainbat antologiatan eta bildumatan argitaratu zituen lanak. Garai hartan kaleratutako erlijio-musikari (organorako eta abesbatzentzako lanei) buruzko antologia garrant zitsu guztietan azalt zen da Ugarteren izena. Aipatutako argitalpenen artean, Aita Otañoren *Antología Orgánica* nabarmendu behar dugu, belaunaldi berriko egile nagusien (Otaño, Guridi, Ugarte, Valdés, Beobide, Mocoroa, Donostia, Busca Sagastizabal etab.) lanak eman bait zituen ezagut zera. Eta at zerrian ere berebiziko mirespena sorrarazi zuen musikaren alo rrean zebilt zanen artean. B estalde, Ugarteren zenbait lan *Cantos Castellanos al Sagrado Corazón* bilduman daude jasota, eta beste asko argitalet xeek hedatu zituzten: adibidez, Donostiako Erviti eta Iruñeko Arilla et xeek. Lehen konposizioak, mende hasierakoak, Erviti et xean argitaratu zituen ( *Tantum Ergo, Genitori, Responso, los Gozos de San Andrés*), eta geroagoko lan gehienak Iruñeko Arillan. Azken horien artean, 1912an *Musika Sakratua* izeneko bilduman kaleratutako konposizioak azpimarratu behar ditugu. Aurrerago azaldu bezala, 1912an argitaratutako lanetako bat zuk zent sore-bat zordeen galbahea gaindit zea lortu zuten lehenengoetakoak izan ziren, eta egileari ospe handia eman zioten gainera. Beste zenbait argitalet xetan ere kaleratu zizkioten lanak tarteka-marteka. Ekar dit zagun, bada, gogora bat zuen izenak: Mar&Company (Bilbo), A. Díaz y Cia (Donostia), Ildefonso Alier (Madril) eta Orfeo Tracio.

Bistakoa da Alfonso Ugartek izugarrizko lana egin zuela. Musika-irakaslea eta erreformaren sustat zailea izateaz gain, mugimenduari lotutako konpositore handia izan zen, erlijio-lan asko eta asko sortu zituela. Erlijio-musikaren norabide berria errot zen saiatu ziren organistak lehengo konposizioez (gregorianoak, ant zinako polifoniak, eta batik bat at zerriko korronte zeziliatarren kantak) baliatu ziren, baina berriak ere sortu behar izan zituzten, ordura arteko errepertorioa ordezkatzeko. Ahalegin saiatu horri esker, lan berrien kopurua, batik bat erlijio-kanta herrikoiena, ikaragarria izan zen, barra-barra kaleratu bait zituzten. Ugartek ere erlijio-lan asko konposatu zituen. Bat zuk, bikainak benetan, argitaratu eta hedatu egin ziren, eta beste batzuk, eskuizkribuak, parrokietan geratu ziren barne-erabilerarako. Hainbat konposizio herriz herri hedatu ziren organisten artean. Eskuz idat zitako kopiak ziren, artean ez bait zegoen lanak argitaratzeko a zpiegitura h andirik. H ori g uztia a ipatu o ndoren, j arraian U garteren konposizioen nondik norakoak zehat zago jorratu eta musikariaren estiloaren eta errepertorioaren ezaugarri bat zuk aztertuko ditugu.

### 3.5. Erlijio-musikan oinarritutako konposizioak

Alfonso Ugartek erlijio-lan asko eta asko konposatu zituen, bai liturgiazko bai liturgiaz bestelako hainbat errepertorio mota landuz. Liturgiari eskainitako lanen artean, honako hauek dira nabarmentzekoak: bi meza (bata 1905ean eta bestea, ospe handia eman ziona, geroago), deiak, *Ne recordaris* errespont sua (hildakoen ofizioa), Aste Santuko Hiruren Santuari eskainitako kanta sakratuak (*Benedictus, Christus est, Miserere*), *Vesperae de Communi unius Martiri* bezpera, eta zenbait ekitalditarako sortutako gorazarreak eta piezak (besteak beste, *Iste Confesor* gorazarrea eta *In festo Nativitatis Sanctae Joannis Baptistae* graduala). Polifonia-lan horietako gehienak kantu gregorianoetan oinarritzen ziren. Jainkoari eskainitako motetak ere sortu zituen, ia denak latinez, eukaristian kantatzeko (*Tantum ergo, Adoremus in aeternum, O Jesu Mi, Jesus dulcis memoria* eta *Hostia divina*, azken hori gaztelaniaz). Azkenik, Ama Birjinari eskainitako latinezko kantak ekarri behar ditugu gogora (adibidez, *Ave María, Tota Pulchra, Ave Maris Stella*, letania bat eta *Salve Regina* famatua, Lizarrak oraindik ere kantatzen dutena).

Esanak esan, erlijio-kanta herrikoiak sortzen egin zuen lanik joriena, ezbairik gabe, horiexek baitira konposiziorik ugarienak. Liturgiaz bestelako hainbat deboziotarako sortu zituen. Horrelako lan gehienetarako gaztelaniazko erlijio-poesiak erabilizituen, Joaquín Bermejok, Aita Teodoro de Iriartek (Lizarrako *Escuelas Pías* ikastetxeko apaiza zen, eta Ugartek musika-eskolak eman zituen bertan) eta Antonio J. Onievak idatziak, besteak beste. Halaber, euskarazko lan sortaxiki bat (*Aguirretar Martin Santuari* gorazarrea, adibidez) konposatu zuen, eta gaztelaniazko eta euskarazko beste zenbait lan ere bai: esate baterako, *Colección de Cantos al Sagrado Corazón de Jesús* eta *Solo Dios Llora = Josu Negarrez* gabon-kanta. Azken kantaren gaztelaniazko letra Joaquín Bermejok idatzi zuen, eta euskarazkoa Aita Renteria kaputxinoak. Lehenago aipatu dugunez, Aita Renteria eta Ugarte elkarlanean aritu ziren euskal kulturaren alde, eta jarrera hori musika sakratuari lotutako mugimendu erreformistan ere islatu zuten.

Gaztelaniazko eta euskarazko herri-kantak hainbat deboziotarako idatzi zituen: batzuk orokorrak ziren, eta beste batzuk tokian tokikoak. Batetik, kanta orokorren artean, Ama Birjinari (*Cántico a la Santísima Virgen, Cántico a María Inmaculada* etab.), San Joseri eta San Joan Bataiatzaileari eskainitako kantak azpimarratu behar dira, eta Jesusen Bihotzari idatzitakoak, garai hartan erruz hedatzen hasitako debozioa baitzen. Bestetik, tokian tokiko santuen eta ama birjinen omeneko kantak sortu zituen. Lizarrako erlijio-ospakizun eta –elkarteei dagokienez, honako lan hauek dira nabarmentzekoak: San Frantzisko Xabierri, Nafarroako zaindariari, eskainitako gorazarrea (Iruñeko orfeoiarentzat), *Gozos a San Andrés* (Lizarrako zaindaria), *Himno Popular a Fray Diego de Estella* gorazarrea eta Puiko Amaren (Lizarrako Ama Birjina) omenezko kantak. Beste udal batzuetako debozioei eskainitako kantak ere sortu zituen: adibidez, *Himno al Santo Cristo de Lezo* ereserkia. Azkenik, Ama Birjinen (Iratikoa, Arantzazukoa etab.) eta hainbat ofiziotako eta erlijio-ordenatako zaindarien (*Cántico en honor a San Francisco de Asís*

eta Eskolapioen ordenaren fundat zailearen, José de Calasanzen, ereserkia) omenezko konposizioak ekarri behar ditugu gogora.

Konposizioen estiloari dagokionez, garai hartako errepertorio erromantiko berankorra eta Wagnerren lengoaia harmonikoa islatu zituen lehen lanetan. Zezilianismoaren eragina, ordea, ia hasieratik nabaritu zit zaion, ziurrenik erreformaren ideiak ordurako hedatutako zeudelako Hego Euskal Herriko zirkulu jakin bat zuetan. Errepertorio hura ezagutu ondoren, Alfonso Ugartek nabarmen aldatu zuen konposat zeko estiloa. Lehen erlijio-lanek, XIX. Mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako urteetakoek, argi erakusten dute musikaria jadanik at xiki zit zaiola estilo handizaleari, gerora erreformaren kontrako erasoen helburu izandako ezaugarrietako bati, alegia. Hasierako estiloaren adierazle bat zuk *Tantum Ergo, Genitori*, *Ne recordaris* errespont sua eta *Gozos de San Andrés* ditugu. Azkenak Lizarrako egonaldiaren hasieran konposatu zituen ustez. Aipatutako errepertorioan bakar-saio birtuosoak eta melodia kromatiko biziak dira nagusi. Gainera, polifonia-ahot sen artean isilune adierazgarriak t xertat zen dira, eta erritmo-eta melodia-oinarriek zerikusi handia dute instrumentuen lengoaiarekin (ahotsek orkestrak d irudite ia). Organo lagunt zailearen lengoaiak beste genero profano bat zuetan garatutako piano-estiloa dakarkigu gogora, pasarte mailakatuak, gai xaloak eta erritmo dantzagarriak eskaint zen baitizkigu.

Dena den, errepertorio zeziliatarraren eragina erabakigarria izan zen Ugarterentzat, e stiloa e rrotik a ldatzea erabaki baitzuen. Geroago, ordea, baliabide barroko handizale guztiak erabat baztertu, kromatismoa leundu eta polifonia errenazentistaren kontrapuntu-teknikei eman zien sarbidea erlijio-lanetan. Ildo horretan, aipat zekoa da teknika horiek korronte zeziliatarrek berreskuratu zituztela. Liturgia-kanta bat zuetan (adibidez hildakoen ofizioan eta Aste Santuko Hirurren Santuari eskainitako kanta sakratuetan), polifonia-baliabide zahar bat, fabordoia, erabili zuen kanta doinu gregorianoak harmonizat zeko. Baditu lan artistikoagoak eta zainduagoak ere (mezak, gorazarreak eta eukaristiako motetak), eta horietan argi ikusten da kontrapuntu-teknika sintaktikoak, Errenazimenduan puri-purian egondakoak, barneratuta zituela. Izan ere, doinuak uztart zerakoan, latinezko testuko esaldi eta hit z nagusiak nabarmendu zituen, ahozko testuaren esaldi bakoit zarentzat esaldi melodiko eta polifonia jakin bat sortuz. Gainera, hainbat eratako pasarteak tartekatu zituen: kontrapuntuak, homofonoak, koralak eta ahot s solistak. Esaldien hasierak mailakatuak dira, ahot sek elkar imitat zen dutela, baina gero egonkortu egiten dira arian-arian, erritmo bakarreko kontrapuntu bertikal libreagoari bide emanez. Hitz nagusiak nabarmentzeko ere erritmo bakarrera eta deklamaziora jot zen du. Testuaren eta musikaren arteko loturari dagokionez, nota bat edo bi darabilt za silaba bakoit zeko, eta esaldien bukaeran melisma laburrak sart zen ditu noizean behin. Musikaren artikulazioa, beraz, testuaren ulergarritasunaren mende dago, argi eta garbi. Konposizio bat zuk doinu gregorianoetan oinarritzen dira, eta beste batzuk egileak berak sortutakoak dira, baina eredu gregorianoak eta Errenazimenduko erlijio-polifonia nabarmen islat zen dira guztietan ere. Aurrerago adierazi dugunez, hasierako lanetako melodietan esaldi zatikatuak t xertat zen zituen gai orokor laburrak oinarri hartuta. Gainera, tonalak (triadak...) ziren funt sean, erritmo lirain

anitzez hornituak. Etapa berrian, aldiz, musika-esaldi jarraituak darabiltza, balio luze uniformeetan inolako etenaldirik egin gabe, eta halaber, arku tankerako melodia-ingeradak, eta tarte laburretan mamitzen diren gradu konjuntuetan oinarritutako mugimenduak. Nola melodiek hala armoniek ukitu modala dute ezaugarri, betiere tonaltasun-sistemaren baitan.

Polifonia-kanta herrikoei eskainitako errepertorioak antzeko ezaugarriak ditu, baina bakunagoa eta freskoagoa da, aurreko lanen zurruntasun eskolastikotik urruntzen baitira. Ugartek egitura berbera erabili zuen ia kanta edo gorazarre guztietan (konpositoreak bi terminoak darabiltza): koruak edo herriak abestutako errepika (gehienetan unisonala, baina batzuetan polifonikoa) eta ahots bakarrak edo bizpahiru ahotsek abestutako ahapaldi bat edo hainbat. Melodia batzuen inspirazio-iturriak liturgiako kantak dira, eta beste batzuenak, berriz, inguru eta erritmo herrikoiak (batik bat euskal folklorea). Erreformaren jarraibideekin bat, erlijio-musika estilo kontzertantetik urrundu eta ahots bakarlarien zorroztasunean murgildu zen. Ahots bakarlariek organoa zuten lagunt zaile bakarra[51]. Geroago, ordea, organoaren tratamenduan pianoaren lengoaia baztertu eta ahotsen polifoniari eman zion sarbidea, organoa ahotsen oinarri eta betegarri harmoniko bihurtuz. Organoak bakarrik diharduen hasierako eta tarteko pasarte laburretan eta instrumentu horri eskainitako lanetan, askatasun handiagoz jokatu zuen gure musikariak.

Bada nabarmendu behar reko beste alderdi garrantzitsu bat: heldutasuneko lengoaia harmoniko ezaugarri berezia. Lehenago zehaztu bezala, denboraren poderioz leundu egin zuen lengoaia erromantiko berantiarrari jarraiki sortutako hasierako lanen kromatismo bizia. Izan ere, musika-lengoaia modern oak ezaugarri zuen kromatismo bizia errezeloz hartu zuten erreformaren jarraitzaileek[52]. *Música Sacro-Hispana* aldizkariaren hasierako aleetako zenbait artikulu, adibidez, baliabide modernisten arriskuez mintzatu ziren. Horra zer zioten: tradizioa zanpatzeaz gain, oso musika xelebrea sortzen zutela, zeharo arraroa, fededunen arreta desbideratzeko eta nahasmendua eragiteko. Aipatutako errezeloaren ondorioz, hainbat konpositore doinu zeziliatarren imitazio arruntak egitera mugatu ziren, eta inolako bizitasunik gabeko erlijio-lanak sortu zituzten. Egile zeziliatarren konposizio askok ezaugarri bereizgarri berbera dute: antzinako polifonien imitazio estandarrak dira, ukitu modaleko lan tonalak. 1912ko Biltzarrean, Aita Otañok lan horietako askoren ezaugarriak salatu zituen: zeharo monotonoak zirela, eta bizitasun izpirik ere ez zutela. Horrela, debozioa pizteko moduko lan originalak, zintzoak eta biziak sortzeko beharra aldarrikatu zuen. Handik aurrera, erreformaren sustatzaileek baliabide berritzaileetan oinarritutako musika garaikide peto-petoaren alde egin zuten. Bi inspirazio-iturri (baina imitaziorik ez) onartzen zituzten: gregorianoa eta antzinako polifoniak. Kromatismoa

---

51. Denaden, familiaren artxiboan, erlijio-lanen eskuizkribuen artean tresna multzo txikientzako konposizioak ere badira (Puiko Amaren omenezko ereserki herrikoia, adibidez).

52. Modernismoaren eta musika sakratuaren erreformaren artekoloturetan sakontzeko, ikus Legasa, 2006.

baliabide adierazkorra izan zitekeen erlijio-konposizio biziak sortzeko, baina betiere neurrigabekerietan erori gabe.

Lengoaia modernoaren aldeko jarrera errotik hedatu zen, batik bat 20ko hamarkadatik aurrera. Horren adibide ditugu *Tesoro Sacro Musical* aldizkarian argitaratutako artikulu ugariak: inspiraziorik gabeko lanak bete-betean arbuiatzeaz gain (nahiz eta egikera zuzenekoak izan), konposizio-teknika modernoen alde egiten zuten. Konpositore bat zuek lengoaia-aukera modernoagoetan murgiltzea erabaki eta teknika inpresionisten bidea urratu zuten, eta zenbaitek atonalismoari ere eman zioten sarbidea. Ugartek, ordea, bere estilo bereizgarriari bizitza osoan eutsi zion, modernismoaren eta Aita Otañok aldarrikatutako tradizioaren artean kokatuta. Erromantizismoaren osteko lengoaiatik abiatuta, diatonismo modernoan oinarritutako estiloa, kromatismo handirik gabekoa, aukeratu zuen gure musikariak ia hasieratik. Lan bat zuek harmonia tonala zuten ezaugarri, tarteka inflexio modalak eta zenbait esaldiren azken kadent zia baino lehent xeago pasarte kromatikoak sartu arren. Baina lanik adierazgarrienetan, musikariaren estilo paregabea islatzen duten horietan, harmoniaren erabilera berrizaleagoa argi eta garbi nabarmentzen da.

Aipatutako konposizioetan, modalitatea ez da mugatzen harmonia tonalean inflexio bat edo beste sartzera; ait zitik, elementu sunt sitzailea dugu, tonalitatearen funtzio harmonikoak erabat desegiturat zen baititu. Ez dago, inondik inora, ardatz tonal zehatz batera eramango gaituen norabiderik, logikarik edo tent siorik. Anbiguotasun harmonikoa areagotu egiten da, lotura tonalik ahulenak (modalitatean nagusi direnak) gailentzen direlako. Horren guztiaren ondorioz, harmonia noraezean dabilkigu, ustekabeko jira-birak eta etenuneak eginez behin eta berriz, modu batetik bestera abiatzeko. Hurrengo adibidea (1. irudia) 1912ko lan bat da: *Sólo Dios Llora = Josu Negarrez* gabon-kanta. Aukeratu dugun kanta-atalean argi ikusten da aipatutako guztia. Lehenbizi, esaldi bati bukaera ematen dio sol maior akordean, konposizioaren ustezko ardatz tonalean, baina bat-batean inflexio modala egin eta sol minor eskalara jotzen du. Sonoritate harmonikoa berehala aldatzen da, diese baten ordez bi bemol azaltzen direla. Bi eskala modalen arteko lotura bakarra fa diesea da, solen sentsiblea. Dena den, fa zenbaitetan moteldu egiten denez, anbiguotasuna sortzen da berriz sol minorren eta bere erlatiboaren, si maiorren, artean. Pasartearen bukaeran dorekiko zazpiduna dator lehenbizi, eta re maiorreko akordea gero. Ikuspegi tonalaren arabera, mailaz mailako bilakaerari jarraiki, azken akordeak sol minorrekoa izan behar luke (progresioa: IV. Graduko do - V. Graduko re - sol tonika). Baina ez da halakorik gertatzen. Kadent zia plagal (IV. Gradutik V. Gradura) modala eginez, azken akordea, anbiguoa zeharo, re maiorra da.




1. Irudia. UGARTE, Alfonso: *¡Solo Dios llora! Josu Negarrez!*, I a ahapaldia, soloa, 28-36 konpasak.

Lotura tonalei garrant zia kent zen dien eta eskala modalen artean ustekabeko jira-birak egiten dituen lengoaia tonala izan zen, hain zuzen, Ugarteren estiloaren ezaugarri bereizgarria, eta bere horretan eut si zion beti. *In Honorem Sacratissimi Cordis Jesu* mezaren (20ko hamarkadaren bukaeran konposatu zuen nonbait) Kyrie-atalean ant zeko pasarte bat dago (2. irudia): hasieran re minorra hart zen du tonalitate nagusit zat, baina gero la minorra darabil. Tonalitate hori, ordea, desit xuratu egiten da, lehen etenaldian I. Eta V. Graduen a rteko (la - mi) kadent zia plagala egin eta mi maior akordeari ematen baitio sarbidea, eta bigarren etenaldian, azkenik, la maiorreko akorde erlatiboa hautat zen du. Gero, pasartea sol minorrerant z daramala dirudi, modu ezegonkorrean bideratuz, baina bat-batean do minor akordea finkat zen du. Pasarte horietako harmonian, tonalitatearen logika funtzional eta direkzional oro sunt situ eta desegituratu egin du egileak. Inflexio modalak dira nagusi, eta ondorioz, t onuz t onu g aramatza u stekabeko a ldaketaz e ta b atbateko jira-biraz jositako ibilbidean murgilaraziz.

Ugarteren lengoaia harmonikoaren ezaugarri bereizgarria diatonismo modernoa da, eta tonalitatearen erabilera, beraz, zeharo berrit zailea. Aipatutako ezaugarriek harrera bikaina izan zuten musikariaren garaikideen artean, eta lengoaia harmoniko berria oso gogo onez hartu zuten, lan harrigarriak eta berrit zaileak egiten zituelako, neurrigabekeria kromatiko handizaleetan erori gabe. Pedro J. Iguain organistak *Cantos al Sagrado Corazón de Jesús* kantetan erabilitako prozedurak biziki goraipatu zituen Alfonso Ugarteri idatzitako eskutit z batean. Kanta guztiak zoragarriak direla eta kantat zen errezatzeko aukera ematen dutela dio, besteak beste. Hona hemen jatorrizko eskutit zaren atal t xiki bat:

Todos los cantos son preciosos, con los que verdaderamente se puede orar cantando; armonización correcta no exenta de gratas novedades, sin incurrir en tortuosos modernismos que con aires de petulancia nos están indigestando en Arte. (...) Música como la suya merece ser divulgada y yo por mi parte no dejaré de encomiarla en los corrillos de amigos profesionales [53].




2. Irudia. UGARTE, Alfonso: *In Honorem Sacratissimi Cordis Jesu* (Meza, hiru ahotsmistorentzat eta organoarentzat), Kyrie, 12-24 konpasak.

Antzeko irit ziak sorrarazi zituen bere lanik garrantzitsuenak eta hedatuenak: *In Honorem Sacratissimi Cordis Jesu* mezak. 1935ean kaleratu zuen Donostiako Erviti etxeak. Oso lan preziatua izan zen, eta luzaroan jo zuten Hego Euskal Herriko katedral, parrokia eta erlijio-elkarte askotan: Antzuolako eta Arrasateko parrokietan, Algortako Trinitarioetan, Begoñako

53. Pedro J. Iguainek Alfonso Ugarteri idatzitako gutuna, 1935eko martxoaren 18koa.

basilikan (Bilbo) eta Iruñeko eta Gasteizko katedraletan, esate baterako. Konpositorearen a rtxibo pert sonalean parrokietako organistek idat zitako eskutitz a sko d aude: p ieza h ori b idaltzeko eskatzen zioten, e rrepertorioan sartzeko. Partiturak salt zen zituzten et xeek (Adibidez, Anacleto Toñarena Bilbon) etengabe eskat zen zizkioten aleak, salgai jart zeko. Manilako (Filipinak) kaput xinoek ere eskatu zizkioten. Aipatutako mezak sekulako arrakasta izan zuen, beraz, eta egileari idat zitako eskutit zetako i ruzkin e ta laudorio ugarietan argi ikusten da zergatik gertatu zen hori. Adibidez, Iruñeko katedraleko organistak, Felix Perez de Zabalzak [54], idat zitako gomendiozko gutunean, Ugarteren mezaren estilo malgua, joria eta berrit zailea goraipatzeaz gain, katedral, parrokia eta erlijio-elkarte guztietako errepertorioetan sartu beharko lit zatekeela azpimarrat zen da. Hona hemen pasarte hori:

> Buena misa para voces mixtas, escrita con mano segura en *estilo severo, flexible y variado*. Los temas siempre litúrgicos están tratados con toda variedad y novedad deseables. Puede y debe figurar en todos los repertorios de Catedrales, Parroquias y Comunidades religiosas.

Izan ere, denak bat zetozen mezaren ezaugarri laudagarriak goraipat zerakoan: egitura erraza eta argia zuela, eta testu ulergarria, melodia gailendu egiten zela (beste egile modernoen lanetan ez bezala), erraz jot zen eta kantatzen zela, eta erlijio-sentimendu sakon-sakona zeriola. Ondorioz, musika sakratuaren eredut zat jo zuten erreformaren jarrait zaileek. Harmoniaren alderdi berrit zaileek ere harrera ezin h obea izan zu ten, ia inork erabili gabeko akorde bit xien bidez soinu-efektu paregabeak lort zen zituelako. Egile garrantzitsu askok goretsi zuten: Luis Urteagak eta Julio Valdések, adibidez. Lehenengoak Donostiako elizetan eta basiliketan hedatu zuen, eta bigarrenak eskutit za idat zi zion Ugarteri, meza izugarri gustatu zit zaiola, oso ulerterraza zela, efektu zoragarriak sort zen zituela eta eredugarria irudit zen zit zaiola jakinarazteko. Hona hemen jatorrizko eskutit zaren pasarte labur hori:

> Le diré sinceramente que me ha gustado muchísimo, es clara de comprensión y de muy bellos efectos que harán de ella una obra de cartel [55].

Hori guztia 1935ean, gure konpositorea hil aurreko urtean, gertatu zen. Merezitako aitorpena izan zuen, beraz, musika sakratuari lotutako mugimendu erreformista sustat zen eta lanak konposat zen jorratutako ibilbide luzeak. Hurrengo atalean Alfonso Ugarteren beste alderdi bat, “mundutarragoa”, izango dugu hizpide, Lizarra hiriko gizarte-bizit zako eta jai-giroko kontuak aipatuko baititugu.

---

54. Ez dira azalt zen ez har tzailearen izena, ezta tokia eta data ere.

55. Julio V aldések Alfonso Ugar teri Bilbon idat zitako gutuna, 1928ko maiat zaren 15ekoa.

## 4. ALFONSO UGARTE, LIZARRAKO MUSIKA-BIZITZAREN BULTZATZAILEA

Orain arte maiz adierazi bezala, Alfonso Ugarte buru-belarri saiatu zen Lizarrako musika-bizitzaren sustatzen, nola goi-mailako eta burgesiako biztanleen artean, hala herritarren artean. Hirira heldu eta berehala izen handia hartu zuen bertako familiarik dirudunenen artean. Ildo horretan, pasadizo bat ekarriko dugu gogora. Juan Sierrak San Pedro Ruako elizako organista-postua berreskuratzeko eskaria egin zuen, eta ezetz erantzun zioten, nahiago zutela Ugarteri ematea, musikari handia zelako eta oso harreman onak zituelako bertako familia garrantzitsuekin. Gure musikariak, hasiera-hasieratik, solfeoko, pianoko eta organoko eskolak eman zituen etxean. Ikasle bat zuk familia onetako alaba gazteak zirenez, areto-piezak idatzi zizkien Ugartek Erromantizismo berankorreko lengoaiaz baliatuta: *Cruz de Flores* (pianoarekin jotzeko balsak), *Vals Capricho*, *Humoreske*, *Carmen* (areto-mazurka) etab. Bestalde, ikasle trebe batzuei prestakuntza berezia emanzien, kanpoko kontserbatorioetara (Iruña, Zaragoza, etab.) joan zitezen piano-karrera ikasten jarraitzera.

### 4.1. Ugarte eta burgesiaren musika-bizitza

Burgesiaren musika-bizitzaren sustatzaile zen aldetik, emanaldi ugari eskaini zizkien: kamera-kontzertuak, sinfonikoak, operak eta zarzuelak. Gure berrien arabera, 1907an hainbat kontzertu eman zituen hiriko lizeo eta kasinoetan, bandako kide batzuek sortutako musika-taldearekin batera [56]. Geroago udal-sestetoa sortu eta hiriko lokal ugaritan eta antzerkian jo zuen. Kontzertu horietan, gainera, sestetoko kideek (José Garagarza, Lizarrako biolinista paregabea, zen kideetako bat) ez ezik, kanpoko musikari garrantzitsuek ere hartu zuten parte. Horrela, Madrileko kontserbatorioko biolin-, kanta- eta piano-sarien irabazleak eraman zituen Alfonso Ugartek. Ganbera-musikako lanak ere sortu zituen emanaldietarako, eta horien artean *Melodía para violín y piano* eta, bereziki, *La corte de Carlos IV* minueta (klasikoa, edo agian "neoklasikoa") dira nabarmentzekoak. Minueta Madrileko *Arte Musical* musika-aldizkari prestigiot suan argitaratu zuten (harpideduna zen Ugarte).

Madrileko eta Iruñeko musikariekin zituen harremanei esker, ospe handiko musikariak eta taldeak eraman zituen Lizarrara. 1924an Madrileko Orkestra Sinfonikoa, Arbós buru zuela, Iruñera joan zen zenbait emanaldi eskaintzera. Garai hartan, orkestra horrek eta Iruñeko orfeoiak lotura handia zuten, errepertorio sinfoniko-koraleko lanak elkarrekin jo ohi zituztelako sarritan. Ugartek, gainera, oso harreman estuak zituen orfeoiarekin, zuzendariaren, Remigio Múgicaren, laguna zelako, eta abesbatza garrantzitsu horrekin hainbat kontzertu eman zituelako organista moduan [57]. Harreman horien

---

56. Ugartek eta bandako kide batzuek Lizarrako kasinoetako gauekoo musika-emanaldietan izandako partaidetza udal-akta batean dago jasota. Ikus Lizarrako Udal Artxiboa (LUA), 251 zk.ko akta-liburua: 1908ko maiatzaren 18ko ohiko bilkura, 134. or.

57. Ugartek San Frantzisko Xabierren omenezko kanta edo ereserkia konposatu zuen orfeoiarentzat. Iruñeko orfeoiaren ibilbideari buruzko argibide gehiago ezagutzeko, ikus Barón, 1991.

guztien ondorioz, Madrile ko Orkestra Sinfon ikoak Lizarran j otzea lortu zuen Ugartek. Teatral Estellesa-n, hiriko ant zoki nagusian, eman zuten kont zertua. Alfonso Ugarteren seme apaiza, Julio, ongi asko oroit zen da Wagnerren *Tanhäuser* laneko *"Erromesen korua"* pasartearen interpretazio zoragarriaz. Baina nahiko jende gut xi joan zenez; antolat zaileek, Alfonso Ugartek eta Emiliano Zorrilla zinegot ziak besteak beste, 500 pezetako zorra ordaindu behar izan zuten denen artean.

Gure musikariak oso harreman estua izan zuen Nafarroako hiriburuko beste musika-elkarte bat zuekin, hala nola *Asociación Santa Cecilia* elkartearekin (Iruñeko orfeoiarekin zuen lotura). 1933tik aurrera, elkarte horren orkestrak ibilbide artistikoak egin zituen Nafarroan zehar, udalez udal. Emanaldi hezitzaileak eskaint zen zituzten oso merke, biztanle gehienek ordaint zeko moduko prezioetan, tokian tokiko udalak emandako dirulagunt zei esker. *Sindicato de Iniciativas y Turismo* (Ekimen eta Turismo Sindikatuak) zelakoak, Eusko Alderdi Jelt zalearen eta Lizarrako udalaren (alkatea EAJkoa zen orduan) babesaz, udaleko zaindariaren jaien astean kont zertura ematera gonbidatu zuen Santa Cecilia elkartea [58]. Alfonso Ugarteren bitartekarit za (harreman onak zituen EAJrekin), ezbairik gabe, erabakigarria izan zen horretan, kont zertua berak antolatu eta eman bait zuen ezagut zera.

Ganbera-musikako emanaldiez eta kont zertu sinfonikoez gain, hainbat zarzuela-lan, bat zuek berak idat ziak, eskaini zituen Lizarran: Tomás Bretónenak, Ruperto Chapírenak... Ziur aski, emanaldiak *Teatral Estellesa* ant zokian egingo zituzten, Ugarteren zuzendarit zapean. Ugarteren art xibo pert sonaleko egitarau baten arabera, 1935ean Ruperto Chapíren *María de los Ángeles* zarzuela komikoaren emanaldia antolatu zuen *Estellesa* ant zokian. Orkestrak 25 musikari zituen (bat zuk udal-bandako kideak nonbait, garai hartan Ugarte baitzen zuzendaria), eta abesbat zak 33 ahot s misto (Lizarrako orfeoiko kideek ere hartuko zuten parte). Ugarteren alaba Mª Puy, udal-orfeoiko abeslaria, izan zen protagonista. Aipatzekoa da, halaber, gure musikariak bi zarzuela labur idat zi zituela Lizarreko musikarient zat: *El roscón de San Francisco* eta *Juguete infantil.* Bistakoa denez, Lizarrako musikaririk ospet suena eta hiriko ta lde askoren (parrokiako ko ruak, orfeo ia eta udal- banda) zu zendaria izanik, musika-eskaint za paregabea antolatu zuen bertako eta kanpoko musikarien bidez.

Esanak esan, Ugarteren ahaleginen esparru bakarra ez zen izan kont zertuetan oinarritutako musika-kultura burgesa, berebiziko ekarpena egin batzuen ospakizun eta festa herrikoietako giroa suspert zeko (Lizarrako udal-bandako zuzendari-postuaren bidez nagusiki) eta euskal kultura eta musika udalean hedat zeko.

---

58. LUA: 486 zk.k o kaxa. Udalak, *Sindicato de Iniciativas y Turismo* sindikatuak eta Santa Cecilia elkar teak elkar ri idat zitako gutunak daude.

### 4.2. Lizarrako udal-bandako zuzendaria

Agirien arabera, XIX. mendearen erditik aurrera udal-banda izan zuten Lizarran[59]. XIX. mendearen hasieratik, parrokietako organistak eta gizarte- eta erlijio-prozesioetan kalez kale jot zen ibilt zen ziren gaitariak ziren hiriko musika-jardueren ardat z nagusiak. Mendearen erdi aldera banda t xiki bat hasi zen aterat zen gaitariekin batera, udalbat zak antolatutako ekitaldi zibilek gero eta garrant zi handiagoa zutelako. Gizarte- edo erlijio-ekitaldiak girot zea zen gaitarien eta bandako kideen zeregin nagusia, eta egun berezietan (Aste Santuan, Gorpuzti Egunean, San Andres egunean eta hiriko jaietan) kalejirak egiten zituzten. Lehen bandetako kideak musikari zaletuak ziren, e ta dirusaria ematen zieten e manaldien truke, baina 1870 aldera, z uzendariaren, Angel Domínguezen, ahaleginei esker, musika-banda ofiziala izateko bidea hartu zuten. Lizarrako udalak, estrainekoz, udal-zerbit zutzat hartu eta arautu egin zuen, erregelamendua onartuz. Kideen soldatak finkatu, musikariak prestatzeko akademia sortu eta musika-tresnak eta uniformeak erosi zituzten. Udal-aurrekontuen b idez e gin z ieten a urre g astu h oriei g uztiei. D enboraren poderioz, udal-bandak hainbat gorabehera izan zituen, eta bertan behera ere geratu zen hainbat aldiz, bat zuetan gerraren ondorioz (bigarren karlistaldia), eta beste bat zuetan kideak ez zirelako azalt zen eta zuzen ibilt zen. Dena den, kontuan hartu behar da soldatak t xikiak zirela, eta bandako kideek beste ogibide batzuetan aritu behar izaten zutela ezinbestean. Eta hori, noski, kaltegarria zen taldearen profesionaltasunarent zat eta zorroztasunarent zat.

Baina XIX. mendearen azken hamarkadan, Julio Romano zuzendari zela, gogotik suspertu eta indartu zen banda. Julio Romano gaitari ospet sua herriz herri ibilia zen Nafarroa osoan, bere trebetasun paregabearen bidez Lizarrako gaitarien izena bazter guztietara hedat zen. Zuzendariaren lanari esker, bandaren zereginak ugaritu egin ziren, eta askoz ere kont zertu gehiago hasi ziren ematen areto publikoetan (Los Llanos parkeko uda-emanaldiei orduan ekin zieten) eta lokal pribatuetan (kasinoak etab.). Julio Romano 1900ean hil zen, eta Feliciano Celayeta y Octavio, San Pedro Ruako elizako organista-posturako oposaketetan Alfonso Ugarteren lehiakide izandakoa, izendatu zuten zuzendari. Asistent zia-faltak eta antolamen du-gabeziak zirela eta, 1903an musika-banda desegitea erabaki zuen udalak, zinegot zien ustez kideek ez zituztelako zegozkion zereginak betet zen[60]. Aurrerant zean, urte luzez, banda militarrek eta udaleko zenbait taldek jo zuten ekitaldi eta jai berezietan, besteak beste Penilla jaunaren edo Juan Sierraren zuzendarit zapean, sarien truke edo unean uneko kontratuen bidez [61]. Sistema hori arazo-iturri larria zen, ordea, ez bait zegoen hiriko musika-premia guztiei erant zuterik, batik bat jaietako prozesio ugarietan eta 1906tik aurrera Los Llanos parkean egin ohi

---

59. Lizar rako banda-musikak eta gaitariek XIX. mendearen bukaerara ar te izandak o ibilbidea ezagut zeko, ikus V illafranca, 1999.

60. Datu hori LUAn dago jasota. 247 zk.k o akta-libur ua: 1903k o apirilaren 15ek o ohik o bilkura, 171-171v. or.

61. Hor relako bandei bur uzko aipamen ugari daude udalek o bilkura ar runten aktetan. Ikus 248 eta 251 zk.k o akta-libur uak.

ziren erromerietan. Udalaren bilkuretan hamaika aldiz mint zatu ziren udal-banda ofiziala sort zeko beharraz, baina ez zituzten asmoak benetan mamitu.

1907an, Alfonso Ugarte zen aipatutako udal-zerbit zua eskaint zen zuen bandako zuzendaria[62]. Hurrengo urtean, 1908aren hasieran, musika-banda berriz instituzionalizat zea eta erregelamendu berria finkat zea erabaki zuen udalak. Orduan, Alfonso Ugartek eta José Penillak banda berrantolatuaren buru izateko eskaria aurkeztu zuten, eta lehenengoari eman zioten postua [63]. Baina bandaren emait zak uste bezain onak ez zirenez, inor ez zegoen pozik: ez herritarrak, ez zinegot ziak. Ugartek eginahalak egin zituen bandaren maila handitzeko, baina ez zuen betiko arazoa, asistent ziarik eta profesionaltasunik eza, konpont zerik lortu. Horretan guztian, gainera, bada aipatu beharreko beste alderdi bat. Udal-bilkuretako aktek agerian uzten dutenez, Ugarte jauna ez zen zinegot zi bat zuen, batik bat Larrainzar jaunaren, gogokoa, musikarekin zerikusirik ez zuten arrazoiengatik. Ugartek Lizarrako Alderdi Jelt zalearekin zuen lotura zen kont zejal horien kontrako jarreraren benetako arrazoia. Bandaren gait z guztiak zuzendariari leporat zeaz gain, honako salaketak egin zizkioten: ez zuela behar adinako gaitasunik eta kasinoetan jot zen ibilt zen zela. Bigarren jarduerarekin udalbat zaren izen ona kolokan jart zen zuela zioten. Salaketak gorabehera, kont zejal gehienek Alfonso Ugarteren alde egin zuten, gizon at segina eta adeit sua irudit zen bait zitzaien, eta zuzendari ona ere bai[64]. Azkenean, betiko arazoa jo zuten bandaren gaitasunik ezaren arrazoi nagusit zat: profesionaltasun-falta. Beraz, berriro porrot egin ondoren, udal-banda desegitea erabaki zuten urtearen bukaeran [65]. Handik aurrera, hainbat musika-talde aritu ziren udalaren zerbit zura, diru-truke beti. José Penilla eta Juan Sierra izan ziren horietako bat zuen zuzendariak, baina nolabaiteko egonkortasuna lortu zuen bakarra Juan Sierraren zuzendarit zapeko taldea izan zen. 1913an udal-banda bihurtu zen, erregelamendu berriaren bidez [66].

Esanak esan, erabateko profesionalizazioa 1920an heldu zit zaien. Urte hartan, banda zeharo berrantolat zea erabaki zuen Lizarrako udalak, beste toki batzuetako banden profesionaltasunari eta trebetasunari erreparatu ondoren. Izan ere, kalitatezko udal-banda sort zea funt sezkoa irudit zen zit zaien hiriaren prestigioarent zat. Udalbat zak inguruko udalei gomendioak eskatu zizkien gaia bideratzeko, eta horrela, adibidez, Tafallako, Zangot zako eta Cintruenigoko udalek tokiko bandei buruzko erregelamenduak eta antolamenduaren xehe-

---

62. Datu hori LUAn dago jasota. 251 zk.k o akta-libur ua: 1907k o azaroaren 18k o ohik o bilkura, 85. or.

63. Datu hori LUAn dago jasota. 251 zk.k o akta-libur ua: 1908k o ot sailaren 8k o ohik o bilkura, 106v. or.

64. Auzi hor ren nondik norak oak LUAn daude jasota. 251 zk.k o akta-libur ua: 1908k o maiatzaren 18ko ohiko bilkura, 134. or.

65. Datu hori LUAn dago jasota. 269 zk.k o akta-libur ua: 1908k o azaroaren 23k o ohik o bilkura, 6. or.

66. Datu hori LUAn dago jasota. 279 zk.k o akta-libur ua: 1913k o urtarrilaren 8ko ohiko bilkura, 148. or.

tasunak helarazi zizkieten. Juan Sierraren taldea desegin, banda berria eratu eta Alfonso Ugarte izendatu zuten zuzendari. Ugartek berrantolat zeko moduari buruzko iradokizunak ere egin zituen. Beste udal bat zuetan oposaketak egiten zituzten zuzendari-lanposturako, baina Lizarrako udalak Ugarte zuzenean izendatzea erabaki zuen, ordura arte eskainitako zerbit zuak eta lortutako merezimenduak zirela eta [67]. Jakinekoa denez, musika-talde ugaritako zuzendaria iza na zen urte luz etan, eta Lizarra ko udal-band aren burua a ldi batez. Horri guztiari merezimendu aipagarri bat gehit zen zit zaion: 1918an, Iruñeko Banda Lehiaketako epaimahaikide izendatu izana, beste musikari handi batzuekin (Guridi, Mokoroa, Julio Gómez eta Lazpiur) batera.

Taldea berrantolatu eta musika-banda profesionala eratu zuten. Arauak finkatu, musikariak aukeratu eta arropa eta tresna berriak erosi zituzten. Talderen profesionaltasuna bermat zeko, Solfeo Akademiatik zetozen kideek musika-ikasketak egiaztatu eta gainerakoek oposaketak gainditu behar izan zituzten. Ugartek antolatu eta balioet si zituen oposaketak. Horrela, banda berriaren ibilbideak 1936ra arte iraun zuen, urte hartan bertan behera geratu bait zen gerra zibilaren ondorioz. 1920tik 1936ra arteko garaia ezin oparoagoa izan zen udal-band arentzat, hiriko jai eta erlijio- eta gizarte-e kitaldi guzti-guztiak girotu baitzituen. Oso talde trebea zenez, ospea hartu eta inguruko herrietatik deit zen hasi zit zaizkion, ospakizun garrant zitsuetan eta ekitaldi berezietan jot zeko. Gauzak errotik aldatu ziren, beraz. Lehen kanpoko musikariak eta bandak (batik bat militarrak) eraman behar izaten zituzten Lizarrara, eta Ugarteren musikariak ekinean hasi eta gero, aldiz, bertako bandak hamaika aldiz joan behar izan zuen kanpora, herriz herri. Lizarrako udal-taldearen ospea alde guztietan hedatu zen, eta 1931n Iruñeko udalak San Fermin jaietan jot zeko eskatu zien. Era guztietako ekitaldiak girotu zituzten: kalejirak, bezperak, dianak, Gazteluko Enparant zako erromeriak, Takonerako basotxoko kontzertuak... Lizarrako udalari egindako eskarian, Lizarrako banda Nafarroako onenetako a zela adiera zi zuten, eta zuz endariaren me ritua zela hori[68]. Ugarteren zuzendari-lanaren ospea gero eta handiagoa zenez, 30eko hamarkadan Hego Euskal Herriko Musika Banden Zuzendarien Elkarteak (*Asociación Vasco-Navarra de Directores de Bandas de Música*) Nafarroako zuzendaritzako buru izendatu zuen Ugarte.

Errepublika gailendu ondoren, 1933an Musika Banden Zuzendarien Elkarte Nazionala eratu z uten. Alfo nso Ugarte kide hut sa zen hasieran, baina geroago Nafarroako zuzendarit zako buru izendatu zuten. Banda-zuzendariek erregelamendu orokorra aldarrikat zen zuten, beraien egoera onbideratzeko eta udal-bandetako kideek ordura arte jasandako diru-eskasiari bukaera emateko. Errep ublikako aginta rientzat estatu-gaia zen musika, eta 1934an, probint zia eta udaletako musika-banden zuzendarient zako errege-

67. Datu hori LUAn dago jasota. 295 zk.k o akta-libur ua: 1920k o ot sailaren 18k o ohik o bilkura, 38. or . Bestalde, udal-bandaren ber rantolaketari bur uzko dokumentazioa (beste udal batzuetako banden arauak, Ugartek ber rantolaketari bur uz idat zitako ohar ra, etab.) LUAn dago, 1729 zk.k o kaxan.

68. Eskaria LUAn dago jasota, 0486 zk.k o kaxan.

lamendua onartu zuten, dekretu bidez (*Reglamento Orgánico del Cuerpo de Directores de Bandas de Música Provinciales y Municipales*). Hego Euskal Herriko Elkarteko zuzendarit zak erregelamendua lehenbailehen moldat zeko eskatu zion Nafarroako Foru eta Probint zia Diputazioari, betiere aipatutako Diputazioaren araudia kontuan hartuta. Nafarroako Diputazioak, ordea, bere autonomia eta erregimen pribatiboa aldarrikatu zituzten, estatuko arauak ezartzeari zegokionez [69]. Gauzak horrela, Lizarrako udalak erregelamendu berrian oinarritutako araudia onartu zuen 1935ean, bandaren antolamendua eta kideen egoera araut zeko. Horrelaxe eman zit zaion amaiera XIX. mendearen bukaeran ernalt zen hasitako instituzionalizazio-prozesuari.

Lizarrako musika-bandaren 1935eko erregelamendua (*Reglamento de la Banda Municipal de Música de Estella*) da gaur egunera arte iraun duen bakarra. T estu h orretan, b andaren a ntolamendua, z ereginak e ta b etebeharrak zehat z-mehatz arautzen dira [70], eta gainera, zertarako sortu zuten ere ekartzen da gogora: jaietan eta ekitaldi publikoetan jot zeko, aisiako ekimenak girot zeko eta herri-kultura suspert zeko[71]. Ohiko betebeharren egutegia finkatu zuten, urtero zein egunetan joko zuten zehazteko: igande guztietan, Lizarrako jaietan eta erlijio-ospakizun nagusietan, hala nola, urteberri-egunean, San Jose, Santiago, San Joan, San Migel eta San Pedro egunetan (hiriko hiru parrokia nagusiak zeuden auzoetan ospat zen zituzten azken hiruren omenezko jaiak), Puiko Amaren agerraldi-egunean eta San Andres egunean (hiriko jaiak egiten zituzten b ietan), Gorpuztian, igokunde-jaian, Ama Birjinaren zerurat ze- egunean eta Gabon-egunean. Lizarrako jaietan, honako ekitaldi hauetan jo beharko zuten: dianetan, udalaren prozesioetan (Puiko Amaren eta San Pedro elizetara) eta F oruen Plazako kont zertu eta erromerietan. Arauen arabera, aparteko beste ekitaldi bat zuetan jot zeko aukera ere izango zuen taldeak, eta horrelakoetan ordainsari berezia kobratuko zuten. Aparteko ekimen horien antolat zailea udala edo partikular bat izan zitekeen, eta bigarren kasuan udalak baimena eman beharko zuen beti. Halaber, hiritik kanpo jot zeko aukera aurreikusten zen testuan, baina horrelako kontratuetan udalak % 15 kobrat zeko eskubidea izango zuela xedat zen zuen. Aparteko ekitaldi horietan jot zeko tarifak ere finkatu zituzten.

Plantilla 28 kidek osat zen zuten guztira: musikariek, zuzendariak eta zuzendariordeak. Azken horrek zuzendaria ordezkat zen zuen hura ez zegoenean, eta zeregin osagarri jakin bat zuk egiten zituen, hala nola paperak garraiatu, gehigarri t xiki baten truke. Bandako musikaria izateko nahitaezkoa zen Solfeo Akademiako ikasketak burut zea (akademiari buruzko erregelamendu laburra ere onartu zituzten), edo bestela, oposaketak gaindit zea.

---

69. Lehendakariak, Alfonso Ugar tek, eta Nafar roako Zuzendarit zako kideek Nafar roako Foru eta Probintzia Diputazioari 1935eko urriaren 30ean Iruñean idatzitako gutuna. K onpositorearen familiaren ar txiboan dago gutun hori.

70. Bai er regelamendu hori bai Solfeo Akademiak oa, dokumentu honi at xikitakoa, Lizar rako Herri Liburutegian daude.

71. Ikus 1935e ko *Reglamento* dokumen tuko I. Ka pituluko ("Dispo siciones gener ales") 1. artikulua.

Denek ez zuten kopuru bera kobrat zen. Musikaririk garrant zitsuenek (lehen klarinetea eta lehen bonbardinoa) 490 pezetako soldata zuten, azken tokietan jot zen zutenek (adibidez, bigarren tronpeta edo t xindata ohartarazleek) 230 pezetakoa, eta zuzendariari 2.400 pezetako soldata zegokion. Astean gutxienez bi aldiz ent seatzen zuten. Musikariek beste lanbide bat zuk zituzten, bandan jot zea bigarren ofizioa bait zen, sarrera osagarriak lort zeko jardunbidea.

